

TOKIKOM

2017ko urria | 174. zenbakia

ai kor!

txorierriko aldizkaria



**Bizkaiko Elizaren
Histori Artxiboa**




azaroak 10-11-12

ZAMUDIOKO

2017

San Martin



-  **4** Eritxiak
-  **5** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... Ariane de Domingo
-  **12** Gurean izan da... Feliu Ventura, kantautorea
-  **14** Gaztea eta... Aratz Astobieta, gizarte-langilea
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Bizkaiko Elizaren Artxibo Historikoa
-  **24** Zamudioko San Martin jaiak
-  **28** Kolore guztietako basoak
-  **30** Alborde films
-  **32** Elkartek... Zamudioko Kamara Korala
-  **34** Teknologia... Kortan ere sareari lotuta
-  **35** Aikorrizketa... Zenbat aurreratu dugu euskaran?
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



12 Feliu Ventura, kantautore valentziarra



24 Zamudioko San Martin jaiak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkarte
Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta,
Arrekili, Tximintx eta Altxora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio buruak: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Erika Bilbao, Izarne Agirre, Idoia Andrés, Jon Goikouria
Larrabeiti, Itallen bertso eskola, Gaizka Peñafiel, Xabier Díaz eta Jose Angel
Mentxaka

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322



AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esan-
nen edota eritxien erantzukizunik.

Ertzak erdigunera ekartzeko unea heldu da

Izenei izana emateko boterea dutenek erabaki zuten zer den langile izatea, zer lana, zer enplegua, zer publikoa, zer pribatua, zer den eta zer ez den... Erdigunea bera definitu zuten, eta ebatzi zuten bertan nortzuk kabitzen ziren eta nortzuk ez ginen kabitzen.

Hitzak ez dira neutroak; hitz bat aipatze hutsak atoa dakar gure imajinariari irudiren bat. Ziurrenik, langile hitza eta langile borroka aipatzean gehienoi burura datozkigu ondoko ezaugarriak: gizona, zuria, industrian lan egiten duena, Euskaldunako borroka, La Navaleko gatazka... Hitzegiak ere mugatzen du langile hitza: "Lanbide jakin batean saritruke aritzen dena; batez ere, industrian lan egiten duena". Eta sindikatuok ere balekatzat eman izan dugu adiera hori.

Krisi ekonomikoak agerian utzi du definizio horrek ez digula balio. Tentaldia egon daiteke zera pentsatzeko: borrokatu beharko ginatekeela krisi ekonomiko-

aren aitzakiarekin lapurtutako eskubiak eta lan baldintzak berreskuratzeko; baina guk, erantzukizunez jokatzeko hautua egin dugu. Ez gara konformatuko lehen geneukana berreskuratzeari eta, joko arauak hautsi dituzten honetan, prekarietateari aurre egiteko joko zelai berri bat eraikitze apustua egin dugu.

Egun, enplegua izateak bizitzeko adina edukitzea ziurtatzen ez duen honetan, bizitza bera da erdigunera ekarri beharrekoa. Gatazka ez da enplegua vs. kapitala, baizik eta bizitza vs. kapitala. Hori dela-eta, orain arteko eskemak deseraiki eta berriak eraikitze-
ra goaz. Langileok, langile guztiok, ondo bizitzeko eskubidea dugulako, horren alde borrokatzea goaz; erdigunea zer den eta zer ez den gure erabakia izan dadin, ez beste inorena.

LAB sindikatuak langile guztion zerbitzura jarri nahi ditu orain arte metatu-



ERIKA BILBAO

(LAB sindikatuaren eskualdeko arduraduna)

tako esperientzia, aitortza eta posizioa. Bazterrean utzi gaituztenok erdigunera gatoz. Langile hitza hizki larriz idatziz eta izenari izan berria emanez, pertsonen zaintza lanean dabilzan emakumeak, langabetuak, aldi baterako eta lanaldi partzialean dabilzanak, norbere etxeko lanean diharduten emakumeak, azpikontratatuak langileak, besteen erdia kobratuz lanaldi berdina egiten duten gazteak... langileok erdigunea okupatu, eta berrama dezagun guztion neurrirako langile borroka! "Lan duina, bizi duina". Urriaren 16tik abenduaren 6ra.

Oi Belen iritsi da zure garaia
Oi Belen, ongi baitu distiratzten
Zugandik heldu den argiak
Betetzen ditu txori herriak
Oi Belen, Oi Belen...

Ahuldu zuten euskarari indarra eman zenion, isilarazi nahi zuten hizkuntzarenugarra hauspotu, hamarka, eta geroago ehun eta milaka Txorierriko txokotan euskararen txinparta piztu eta elikatu. Zure ibilbide emankorra bailara txiki honen memorian erregistratuta dago. Lehen euskara eskolak Txorierriin, gauez edo egunez (ordutegiak ez du inporta), hasi ziren modu ez oso legalean eta joan ziren finkatzen. Zu-

Oi Belen...



IZARNE AGIRRE
(Irakaslea)

re ibilbidean zehar hainbat pasarte, momentu, partekatu ditugu, denak ere euskararen argia indartu asmoz; Txepetxa euskaltegioko batzarrak, ikasleei egindako ongi etorriak, sagardotegira bidaiak, pintxo lehiaketak, Korrika eta "korrikitis-a", dantzan, kafetxoak, matrikulazio kanpaina, administrazio koordinatuarekin borroakak, eta udal ordezkariekin bilkurak... guzti horiek inoren edo guztion mesedetan, euskararen alde.

Nekaezina eta irribarrea ahoan, plazer bat izan da, Belen, zure bidailagun izatea. Eta hemendik aurrera ere elkar topo egingo dugu edozein herriko jai edo borrokatan, euskararen indarrak txorien herriak argitu eta berotu arte.

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

aldekone
hartz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Uribarri 7, beheko
48160 DERIO (Bizkaia)

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, Aikori!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikor.com.

Ke4: Udazkeneko gau bateko ametsa

Datorren azaroaren 11n beteko da Ke4 eta 6MO taldeen emanaldiaren bosgarren urteurrena Martin Deunaren jaietan. Talde biak zamudoztarrez osatutakoak. Kontzertu horrek eragin handia izan zuela uste dot, bai taldekideengan, bai entzuleengan. Amets batean geunden, montaia, emaitza, laguntza... sinestu ezinik. Esan daiteke gau haretan bizitakoa zoragarria eta harrigarria izan zela.

Taldea Juan Hidalgori kitarra jotzen irakasteko eskatu nionean sortu zen. Helburuak: estresari aurre egiteko ihesbide bat izatea eta lagunarteko afarientan abestiren bat kantatzeko gai izatea. Hilabete batzuen ostean Natxo Hidalgo batu zen taldera, eta gero, berak eskututa, Aitor Zarate.

Martin Deunaren jaietan parte hartzeko Mireia Zarateren gonbidapena hartu ondoren, taldeari Ke4 izena jarztearabaki genuen; batetik lau pertsona oso desberdin ginelako, eta bestetik, "K", euskerari keinu bat egitearren, apur bat behartua, dena esateko.

Horrela hasi zen Ke4 taldearen ibilbidea. Jaiak, tabernak, Kontzertu aretoen bat, entseguak (beharbada lar), emanaldi bakoitzaren osteko Bidegorri-



ko afariak. Horrela 2012ko Martin Deunaren egunetik 2014ko irailera arte. Momentu horretan taldea uztea erabaki bai-

nuen, atzean aro zirrargarriak, biziak eta batzuetan gogorrak utzirik, hau da, bizitza bera bezalakoa. Alde egitean gauza bat baino ez nuen eskatu, jarraitzen bazuten, taldearen izena aldatu behar zutela, izena neuk proposatutakoa zen, eta are garrantzitsuagoa, sortuko zutena beste gauza bat izango zelako.

Hau da nola sortu, hasi eta hil zen proiektu liluragarri eta harrigarri baten historia. Ke4 Martin Deunaren gau magiadun batean... herri bat maitemindu zuena. Beste barik.

Carlos Cortés



yedra floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefona: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, beheka B
48150 SONDIKA

634 410 470
auzokidefncas@gmail.com

KAFETEGIA

IMZI
JATETKEA

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

TXORIERRI Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

arregandik gorte

ARROKULABITZA - TANABITZA
ALONATZEAK - ENKULATZEAK
SALEROSKETAK
SEGUROS BILBOAREN AGENTZIA

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

HARAGITEGIA
URDAITEGIA
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TLFNOA: 94 454 10 75

DERIO

Eskerrik asko
etortzeagaitik

Herriarrek Udalaren lehentasunak ezagutu ahal dituzte sondikakoaukera.eus webgunean

Xabier Zubiaur Sondikako alkateak www.sondikakoaukera.eus webgunea aurkeztu du. Ataria "Sondikako aukera – Sondika aukeratu" programaren haritik ipini dute martxan, eta herritarren eta Udalaren arteko harremana sustatzeko tresna izatea du helburu, sondikoztarrek Gobernu Taldearen lehentasunak zeintzuk diren jakin dezaten, eta horiei jarraitzea egin ahal diezaizuten. Zubiaurren esanetan, beste talde politikoentzako tresna ere bada. "Edozein momentutan jakitun egon daitezten eta gai bakoitzari dagokionez, euren proposamenak mahai gainean ipini ditzaten".


Horrela, bada, webgunean Udalaren lehentasunak hiru multzotan batu dituzte: legealdiko lehentasunezko proiektuak, lehentasunezko kudeaketako proiektuak eta modernizazio proiektuak. Guztira, 82 proiektu dira, herritarren bizikaltatea hobetzea helburu dutenak. Proiektu horiek zehazteko orduan, lau esparru hartu dira kontuan: herritarrak, hiri garapena, balioak eta auzoen garapena.

Legealdiko lehentasunezko proiektuen atalean 13 egitasmo batu dituzte. Haien artean hauek daude: langabezia-tasa %10etik behera ezartzea, euskararen



plan estrategikoa eta Asua ibaia Sangroizen bideratzea. Lehentasunezko kudeaketako proiektuen atalean 42 egitasmo jaso dituzte: kirola sustatzea, merkataritza eta industriguneak indartzea, eta puntu beltzen mapa osatzea, batzuk aipatzearen. Eta, azkenik, modernizazio proiektuen multzoan 27 egitasmo batu dituzte; haien artean, jokabide onaren kodea, hondakinak biltzeko zerbitzuaren eta garbiketa-zerbitzuaren kalitateari eustea, eta herriko elkartek sustatzea.

Proiektu bakoitzaren izenaren gainean klik eginez, herritarrek haren gaineko informazio xehatua jasoko dute, hala nola egitasmoaren deskribapena, orain arte egindako ekintzak eta aurrekontua, eta euren iritzia eman ahalko dute proiektuari eta Udalaren jardunari buruz. Zubiaurrek adierazi duen moduan, webgunea "gardentasunaren aldeko behin betiko aurrerapauso bat da, eta prozesu-kudeaketaren ezarpena ere bada".



Loiuko Udalak aplikazio berri hori ipini du martxan, Udala eta herritarrak elkarrengandik gertuago egoteko. Hala, norabide biko komunikazio gune parte-hartzailea sortu nahi dute. "Kalezaindu zerbitzua dago aplikazioaren barruan eta

Loiu zabaltzen app berria

horren bidez, loiuztarrak Loiu zaintzen lagunduko digute, herrian ikusten dituzten akatsak-eta jakinarazi ahal izango dizkigutela. Era berean, aukera edukiko dute albisteak, ekitaldiak, oharrak... telefono mugikorrean jasotzeko", idatzi du Josu Andoni Begoña alkateak bere blogean. Aurrekontuak, udal-arauak eta abarrek ere plazaratuko dituzte aplikazioaren bidez.

Aplikazioa Bizkaiko Foru Aldundiaren BizcayTik fundazioak ipini zuen martxan 2014an eta dagoeneko Txorierriko Udal guztiek erabiltzen dute, Larrabetzukoa izan ezik, Hirix aplikazioa erabiltzen du eta.

Bestetik, Loiuko Udalak bere webgunea, www.loiu.es, ere berritu egin du. Herritarrek online egin ahal izango dituzte izapideak, eta hainbat agiri deskargatu, hala nola ordenantzak eta udal bandoak. Udalak beste zerbitzu batzuk gaineratuko ditu etorkizunean. "Era errazago eta modernoago batean aurkeztu nahi dugu udal informazioa. Administrazio elektronikoa bultzatu nahi dugu eta, gainera, Udalaren jardura modernizatu. Udal digitala izan nahi dugu, gardenagoa eta eraginkorragoa. Webgunearen eta aplikazioaren bidez, harreman-eredu berri bat sustatu nahi dugu, loiuztarrek bertan parte hartzeko".

Jaurlaritzak Kultura-ondasun izendatuko du Burdin Hesia

Eusko Jaurlaritzak babes berezia emango dio Burdin Hesiari. Hala, argitaratu du Bilboko Burdin Hesia eta defentsak (Araba eta Bizkaia), monumentu-multzoren kategoriarekin, kultura-ondasun kalifikatu izendatzeko espedienteak. Eremu horrek Bizkaiko hainbat herritako lurra hartzen ditu, Derio, Erandio, Larrabetzu, Lezama eta Loiu, barne. Artxandako Lerroari dagokionez, eratzun nagusiaren barnean antolatua, Sondika eta Zamudioko lurra ere hartzen ditu.

Burdin Hesiaren barruan, tipologia eta garrantzi askotako aztarnak daude, eta horiek guztiak babestu nahi ditu Eusko Jaurlaritzak. Ondareari balio handiago emateko, eta behar bezala ulertzeko, funtsezko gakoak dira. Eta aztarnak ez daude isolatuta, sistema bakar batean biltzen dira eta haren atal dira. "Babesa garrantzitsua da, aztarnak ez desagertze-

ko, gure historia kontatzeko funtsezkoak direlako", esan du Iñigo Gaztelu Larrabetzuko alkateak. Espedienteari esker, ondasuna kaltetu dezaketen jarduerarik ahalik eta gutxien egingo dira, eta ez da aztarna higiezin edo elementu nabarmen suntsipena edo kaltea eragin dezakeen erabilerarik eta jarduerarik onartuko.

Eusko Jaurlaritzak hainbat eremu babestuko ditu eta maila ezberdinak ezarri ditu, babesteko beharraren arabera: babes bereziak behar dituztenei dagokionez, besteak beste Larrabetzuko Gaztelu-mendi, Goikomendi eta Gaztelu aipatu ahal dira; baita Loiuko Fanarragamendi eta Zamudioko Avril mendia ere. Bigarren mailako babes eremuari dagokionez, espedienteak Larrabetzuko Zarandoa eta Sondikako San Roke eta Pikotamendi hartzen ditu aintzat.

Kanta ikastaroa, Lezaman

Zorritzetan bertako euskara elkarteak antolatuta, 12. aldiz egingo da aurten. Aurreko urteetan bezala, irakaslea Itsaso Arrieta izango da eta ikastaroa egun hauetan emango ditu: azaroaren 10ean, 17an eta 24an, eta abenduaren 1ean. Saioak Uribarri Topalekuan izango dira 19:00etatik 20:10era. Euskara elkartearen bazkideek bost euro ordaindu beharko dituzte; eta gainontzekoek, 10 euro. Izena emateko, WhatsApp bidali daiteke 652 43 69 17 telefono zenbakira; edo zorritzetan@gmail.com helbide elektronikora idatzi.

Bizikleta uzteko gunea atonduko dute Zamudioko tren-geltokian

Zamudioko Udalaren ustez, bizikleta eta trena garraibide osagarriak dira eta horregatik dabil tren-geltokiaren ondoan bizikletentzako aparkalekua eraikitzen. Lanak irailean hasi ziren eta laster amaituko dituztela aurreikusten da.

Aparkalekua erabiltzeko, bidaiariak trenaren txartela zulatuta beharko dute bertan, baina horrek ez die gainkosturik ekarriko, zerbitzua haientzat doanekoa izango baita. Guztira, 32 bizikleta sartzeko lekua egongo da. Aparkalekuak batez ere erabiltzaile mota bi izango ditu: batetik, lanera trenez joaten diren zamudiotarrak; eta bestetik, Zamudiora trenez lan egitera etortzen direnak. Aparkalekua trenbide-pasagunearen ondoan eraikitzen dabilta. Hara sartzeko arrapala txiki bat eta eskailerak ipini dituzte. Era berean, bizikletak babesteko metalezko markesina egongo da.



LOIU

–Ipuin kontalaria. Azaroaren 22an, 18:00etan, Zabalotzeko ludotekan.

SONDIKA

–Berdintasunaren aldeko ekintzak, Ludotekan.
–Berdintasunaren aldeko kartel lehiaketa. Azaroaren 10etik 12ra, Gaztetxean.
–Zurumurru ez sexistei buruzko tailerra. Azaroaren 24an, Gaztetxean.

ZAMUDIO

–“Zurumurru sexistak”. Azaroaren 17an, 19:00etan, Gazte Estazioan.
–“Mikromatxismoak eta indarkeria sinbolikoa” hitzaldia. Azaroaren 23an, 19:00etan, Zamudiotorren.
–Berdintasuna lantzeko tailerrak. Azaroaren 24an, 20:30ean, Ludotekan.

Azaroaren 25eko ekintzak

Egun horretan Emakumeenganako indarkeriaren aurka-ko Nazioarteko Eguna ospatzen da, eta Txorierrin ere hainbat ekintza egingo dira emakumeek mundu osoan jasaten duten indarkeria salatzeke, eta horren kontrako neurri eraginkorrak har daitezela eskatzeko. Urriko alea itxi orduko, ekintza hauen berri eduki dugu.

–Boxeoa. Azaroaren 24an, 20:30ean, kiroldegian.
–Berdintasunaren aldeko martxa, Arroeta mendi taldearen eskutik. Azaroaren 25ean, 08:30ean.
–Elkarretaratzea. Azaroaren 25ean, 12:00etan, Kultura Etxean.

LEZAMA

–“Emakumeak transitoan” hitzaldia. Azaroaren 23an, 18:00etan, Kultura Aretoan.
–Tratu onen inguruko jolasak. Azaroaren 24an, 18:00etan, Ludotekan.
–Kontzentrazioa. Azaroaren 24an, 19:00etan, plazan.
–Berdintasunaren aldeko tailerrak. Azaroaren 24an, 19:30ean, Gaztegunean.
–*Tú+Yo=es* eta *Marcela, ayer y hoy* antzezlanak, Ausartak antzerki taldearen eskutik. Azaroaren 24an, 19:30ean, Kultura Aretoan.

LARRABETZU

–Elkarretaratzea eta *Women in black* ekitaldia. Azaroaren 25ean, 13:00etan, plazan.
–Gazteak horma-irudia margotzea. Azaroaren 25ean, 18:00etan, plazan.
–*Streptase* performancea. Azaroaren 26an, 18:00etan, Hori Baien.
–“Mikromatxismoak eta indarkeria sinbolikoa” hitzaldia. Azaroaren 28an, Anguleri Kultur Etxean.



a: Idoia Andres

Jatetxea SAN ISIDRO

EUSKO ORELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERKO GOZOGINTZA APARTA

ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefona 94 454 07 98 Mungialde etorbidea, 25
Fax 94 454 14 18 48160 DERIO

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikatzak, orokorrean
Auzokomunitateak
Mantentze garbi-ikatzak
Bulegoak eta lokalak
Oliniko enpresen garbiketa
Ikastetxeak
Zabur bilera

Besaide Plaza, 1 - B° Aldekone Tel: 94 406 49 92
48160 DERIO (Bizkaia) 656 712 443
loreagarbi@euskalnet.net Fax: 94 406 49 93

BASALBEITIKO TXAKOLINA

Etikako Txakolina
(Denbora eta diru argia)

Bakabon Txakolina

Goitioltza suez, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

t o k t a k

EGUNEKO MENUA

lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

Bestorrene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

Nire Autocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefona-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai jarraituz Facebook-en

Derion AHORA kanpaina ipiniko du martxan Tximintxek

Tximintx Derioko euskara elkarteak bultzatuta, hiru multzotan banatu dira herriko dendak, tabernak, jatetxeak eta zerbitzuak, bezeroari euskaraz aritzeko ematen dioten aukeraren arabera: euskaraz egiteko aukera handiak ematen dituztenak; euskaraz egiteko aukera urriak ematen dituztenak; eta euskaraz egiteko aukerarik ematen ez dutenak. Datuak mapa batera eraman dituzte.

Azaldu duten moduan, zenbatu dituzten 150 establezimenduetatik erdietan baino gehiagotan badago euskaraz aritzeko aukera. Horren haritik, eta aukera horiek aprobe-txatzeko asmoarekin, Derion AHORA kanpaina ipiniko dute martxan azaroaren 30etik abenduaren 3ra arte. Kanpainak herrian bizi edo lan egiten duten 365 lagunek aipatutako egunetan euskara hutsez aritzeko erronkari eustea du helburu.

Esandakoaren arabera, 70 establezimenduk baino gehiagok adierazi dute kanpainan parte hartzeko interesa, eta orain herritar bila dabilta. Bide bi

egongo dira egitasmoan parte hartzeko. Alde batetik, herritar batzuk "ahobizi" izango dira eta euskara hutsean egingo dute. Bestetik, beste herritar batzuk "belarriprest" izango dira eta ahalegina egingo dute euskaraz aritzen direnei ulertzeko. Kanpainak lau egun iraungo du aurtun, baina asmoa da datorren urteari begira 11 egun irautea.

Informazio gehiago:

derionahora@gmail.com

www.facebook.com/DerionAHORA/

Twitter: @derionahora



Euskal azoka egingo da lehen aldiz Sondikan

Aurtun, Sondikako azokaren XXI. edizioa beteko da, baina Xabier Zubiaur alkatetik jakinarazi duen moduan, nobedadez beterik etorriko da. Izan ere, azoka itxuraldatu eta Euskal azoka egingo da lehen aldiz. "Jendearen partaidetzatik dator nekazal azokari kontzeptualki bueltatxo bat ematea. Horregatik pentsatu genuen beste norabide bat hartu eta euskal kulturarekin eta euskararekin lotutako azoka sortzea". Azoka azaroaren 11rako eta 12rako antolatu dute. Zapatuan, Bizkaiko Eskupilota Herriarteko Finala egingo da Gorondabeko frontoian, 17:00etan. Partidak umeak, kadeteak eta seniorrak kategorietan jokatuko dira. Azokaren egun nagusia domekan izango da.

Azokari 10:00etan emango diote hasiera eta, merkatuan, 14:30ak arte egongo da euskal produktuak erosteko aukera. Era berean, hainbat ekitaldi egingo dira goiz osoan zehar. Hala, 10:15ean txalaparta erakustaldia izango da Ikurriñaren enparantzan, eta Ipar Elaiak txistu taldea kalejira aterako da 11:00etan. Ordu horretan ere jokatuko da Sokatira Bizkaiko Txapelketaren bigarren saioa, eta 12:00etatik 14:00etara talo eta eskupilota tailerrak egingo dira merkatuan. Gorantzaileak dantza taldeak, buruhandiak eta erraldoiak girotuta, dantza-potea egongo da 12:00etatik aurrera. Hitzordua Ikurriñaren enparantzan ipini dute. Bestetik, txalaparta tailerra egingo da 12:30ean, eta Bentzaharreko mutiko alaiak taldeak euskal kanta eskainiko dituzte 13:00etan. Ikurriñaren enparantzan, dantza-kanten saioa izango da 13:30ean.

elekma
LARRAZEREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TOKUAK
Lehenengo markak • Presorik onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY
Txarrenti etorbidea, 25-3-4 • 48180 Iruia
T: 944.539.232
www.elekma.es

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa
Txarrenti etorbidea, 9-4
415. Iruia
48180 Iruia
Telefonoa eta faxa
94 434 44 98
a.amondarain@euskadnet.net

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.
Mateo Bidaurrezaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

LEZAMAKO BATZOKIA
KAXOLAK
ANOAK
OGITARTEKOAK
HANBURGESAK
PLATER KONBINATUAK
PINTXOAK
ENKARGUZO MENUAK
ETXERA ERAMATEKO ERE EGITEN DITUGU!
Garaioltza 120, Lezama
Tel. 946552749

Danerik paraje!-k 500 euroko bost txeke zozketatuko ditu

Bezeroek txartel bana jasoko dute, eta elkartearen barruan dauden establezimenduetan gutxienez 10 euroko erosketa egiten badute, zigilu bat ipiniko diete bertan. Zozketan parte hartu ahal izateko, hiru zigilu lortu behar dituzte. Txartelean izen-abizenak eta telefonoa zehaztu beharko dituzte, eta erosketa-ticketak grapaz lotu. Txartelak Kultur Birikan edo zenbait dendatan egongo diren ontzietan utzi beharko dira.

Zozketa abenduaren 27an egingo da, 20:30ean, Kultur Birikan izango den Gabonetako Galan. Saridunei telefonoz deituko diete eta ez da beharrezkoa izango Derioko Kultur Birikan egotea. Hala ere, hara joan beharko dira sariaren bila. Saiakera batzuk egingo dira eta saridunak telefonoa hartzen ez badu, beste txartel bat aterako da. Saridunek elkartearen barruan dauden bost establezimendutan gastatu beharko dituzte txartelak. Gutxienez 80 euro gastatu beharko dute establezimendu bakoitzean. Kanpainari azaroaren 2an emango diote hasiera.

Txuma Olagüek Fair Saturday ekimenen hartuko du parte

Santa Zetilia azaroaren 22an da eta ospakizunaren haritik, Txuma Olagüe abesbatzak eta Txuma Olagüe talde koralak kontzertua eskainiko dute azaroaren 24an, Paula Perez Bueno batutapean. Kontzertua arratsaldeko 8:00etan izango da Sondikan, San Juan Bautista elizan. Esan diguten moduan, Fair Saturday ekimen solidarioekin egingo dute bat, eta sarrerei esker batzen duten diru guztia Caritasi emango diote.

Etxahun Lekue, finalaurrekoetara

a: Alberto Elozegi / iturria: XDZ

Bertsolari Txapelketa Nagusiko seigarren eta azken final laurdena Tolosako Beotibar pilotalekuan izan zen urriaren 14an. Maddalen Arzallus, Jon Maia, Eneko Lazkoz, Beñat Lizaso, Xabat Gallettebeitia eta Etxahun Lekue aritu ziren bertsotan, Ion Zalduak proposatutako gaiei erantzunez. Etxahun Lekue larrabetzuarrak lortu zituen puntu gehien eta Tolosako saioa irabazita, azaroaren 4an Maule-Lexarreko finalaurrekoan kantatzeko aukera lortu du zuzenean. Berarekin batera hauek egongo dira oholtzan: Beñat Gaztelumendi, Nerea Ibarzabal, Beñat Iguaran, Julio Soto eta Nerea Elustondo.

Saioa 17:00etan hasiko da eta ateak 15:30ean zabalduko dira. Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian zein txapelketako webgunean zehaztutako salmenta puntuetan eskura daitezke. Saioa www.bertsoa.eus ataritik jarraitu ahalko da zuzenean.

Bestalde, aipatu beharra dago, saioaren harira, Sohütako Eperra ikastolak baz-

karia antolatu duela. Bazkaria ikastolaren ondoan dagoen Sohütako gelan egingo da. Txartel kopurua mugatua da, 200 lagunek bazkaltzeko aukera izango dute bertan. Bazkaria 15 euroan da, eta honakoa da menua: kuia krema edo salda, axoa eta arroza, gazta, bixkotxa, kafea eta patxarana, ogia eta ardoa. Bazkarirako erreserbak ondoko telefonora deituta egin behar dira: (+33) 681 811 439 (Pantxika).



Larrabetzuko, LED argiak edukiko dituen lehenengo futbol-zelaietariko bat

Fokuak kenduko dira azaroan, eta haien ordeaz LED argiak ipiniko dira. Argiak aldatzeak kontsumo elektrikoaren % 70 aurrezteko ekarriko du. Gainera, lanpara horiek gaur egungoek baino bizitza erabilgarri luzeagoa dute. Argi-sistema berriak posizio bi edukiko ditu: bata, entrenamenduetarako; eta bestea, partidetarako. "Horri esker, instalazioak eraginkorragoak izango dira, iraunkorragoak eta energia gutxiago kontsumituko dute", esan du Iñigo Gaztelu alkateak.

Proiektua 2017-2019rako Inbertsio-plan Estrategikoaren barruan dauden egitasmoetariko bat da, eta 60.340 euroko kostua edukiko du. Bizkaiko Foru Aldundiak kostuaren % 60 ordainduko du, energia-eraginkortasuna hobetzeko diru-laguntzen haritik. Instalazioa martxan ipintzen denean, Larrabetzuko teknologia berri hau, energia aurrezten duena eta askoz merkeagoa dena, daukaten lehenengo futbol-zelaietariko bat izango da.





Ariane de Domingo | Gorputza eta adimenaren kultura

Mens sana in corpore sano esan ohi da. Txikitan zaldiketan hasi zen Ariane, gaztetan aerobika landu zuen, eta gaur egun fitnessaren munduan dabil, pisuekin eta gimnasioko makinetan gora eta behera. Gorputza gaur zaintzen ez badugu, etorkizunean medikuek zaindu beharko digutela irakurri zuen behin derioztarrak. Ariketa fisikoa uste baino askoz gehiago dela aipatzen du: depresioak ekidinez eta autoestimua handituz. Sasoian egoteaz gain, irribarretsu eta pozik agertzen da argazki guztietan Ariane. Nola bestela?

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
www.jongoikouria.com

"Mens sana in corpore sano" esaldian, beste argazkiren bat behar zan agian... liburu eder batzuk gimnasio erdian edo hiru- lau pesa liburutegian.

Itallen Bertso Eskola

Peñasko
arraindegia



Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

RUBÉN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Leizaola plaza, 3
48170 Zamudio
94 452 14 49

RPM
MAYORISTAS INFORMÁTICOS

ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

ZAMUDIO
Loteria Nazionale

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBASTARITZA
Naves Pedrosa Gdo. 117
COOP. SANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

t: Itxaso Marina / a: Gaizka Peñafiel

Aldizkaria kalean egon orduko jakingo dugu Puigdemontek Kataluniako errepublika independentea aldarrikatu duen, edo hauteskundeetara deitu duen. Nolanahi ere, gaur, erabaki hori jakinarazi baino pare bat egun lehenago, zein da zure susmoa?

Independentzia aldarrikatzeari dagokionez, zalantzan nago. Nire ustez, gabezia bertan behera utzi eta beste hitz-joko bat egingo da, zalantza mantentzeko. Ez dakit zer gerta daitekeen, baina norabide biko hordagoa botako den susmoa dut, jendearentzat une honetan ulertezina dena. Instituzioetatik esaten diete herritarrei baketsu mobilizatzeko, egin beharrekoa egiteko... eta haiek ez dute ezertxo ere egin. Egin duten gauza bakarra independentzia aldarrikatzea edo izan da, eta handik hiru segundora hori gabetu. *Governi* dagokionez, ez naiz zer gertatzen ari den ulertzeko gauza; eta Espainiako gobernuari dagokionez, ez dago inongo borondaterik, jakina. Apur bat frustragarria eta etsigarria da, ematen duelako inork ez duela nahi prozesua amaitzea. Alde biak dabilta nork bere opilari ikatza ematen. Eta hau bakarrik independentzia aldarrikatua amaituko da.

Eta zer deritzozu, 155. artikulua ekiditeko, Gubernek hauteskundeetara deitzeari?

Paradoxikoa da lehenik botoa ematea debekatu izana eta gero botoa ematera behartzea. Zentzugabekoa da eta hauteskunde horietara deitzen bada, demokraziaren aldeko alderdiek ez lukete aurkeztu beharko.

Independentzia aldarrikatzen bada, hiru neurri ezarriko dira artikulua horren haritik: *Governa* kargugabetzea, Mossoen agintea hartzea, eta Kataluniako irratitelerbista esku har-

“Etsigarria da, ematen duelako inork ez duela prozesua amaitu nahi”

“Hau bakarrik indep aldarrikatuta amai

FELIU VENTURA | kantautorea



Xátivako musikariak Lezaman, irailean, Kataluniako erreferendumari babesa emateko antolatu ziren ekintzetan hartu zuen parte. Urriko edizioa itxi orduko izandako gertakizun nagusiak eduki ditugu hizpide berarekin.

tzea. Gainera, sei hilabeteren buruan Katalunian hauteskundeetara deitze-ko asmoa du Espainiako gobernuak. Zer pentsatzen duzu neurriei buruz?

Espainiako gobernuak *procésa* ez amaitzea nahi duela uste dut. Zenbat eta luzeagoa izan, ahalik eta hobeto berarentzat, Estatua zentralizatzeko operazioa egin ahal izateko. Bestetik, batzordean dagoen pertsonetariko bat Alberto Fabra da, Valentziako *Generalitate*ko presidentea izan zena, Valentziari egindako arpilatzearen erantzuleetariko bat, eta *Canal Nou* desagertzeko erantzuleetariko bat. Gaiari seriotasunez heldu behar zaio, ez

delako lehenengo aldia telebista publiko batean esku hartzen dutela.

Genovatik gezurtatu duten arren, PP alderdiko sektore batzuek Kataluniako alderdi independentistak legez kanpo uzteko eskatu duten zurrumurrua zabaldu da.

Bete daitekeen mehatxua da. Baina onartezina izango litzateke Europako herritarrentzat, nahiz eta nazioarteko komunitatea kontserbadorea izan eta horretan ez sartu. Argudio politikoa baino ez da, eta ez dauka justifikaziorik, ez ordena arloan, ez lege arloan. Justifikazio bakarra herria preso politikoa bihurtu nahi izatea da.

independentzia gertatuko da"



Sanchez eta Cuixart espetxeratu izana, politika epaien bidez egiten den adibidea izan da?

Bai, hori da 78ko Estatu konstituzionalaren sorrera. Lehenengo eta behin, preso politikoak ez direla esan dute, politikariak ez direlako, eta politika haiek esaten dutena delako. Sanchez eta Cuixart oso figura inportanteak dira, kalean prozesuaren zati bat bultzatu dutelako, eta abisua izan da. Hala ere, kargudun publi-

Hurbiletik

Xátiva, 1976 (Valentzia). Feliu Ventura kantautorea 1993. urtean eman zion hasiera bere musika ibilbideari eta zortzi lan kaleratu ditu handik hona: *Barricades de paper* eta *Musica y Lletra*, tartean. Lluís Llach-ekin batera biran ibili zen 2005. urtean, *Que no s'apague la llum* lanarekin. Javier Muguruzarekin egin du kolaborazioa, eta memoria historikori buruzko liburu bat idatzi du, gazteei zuzenduta dagoena: *Com un record d'infantesa*. Lotura handia du Kataluniarekin, eta bertan lagun minak izateaz gainera, hainbat urtetan bizi da Bartzelonan. Kataluniako Herrien independentziaren aldekoa da.

koen kontrako errepresioa hasi bezain pronto, kartzela-zigorak-eta, nazioarteko bataila galduko dute.

Zelan bizi zenuen urriaren 10a?

Ez nekien zer espero. Askori gertatu zitzaizen moduan, liderrek traizioa egin ziguten sententzia eduki nuen, uste dudalako, herritarren aginduari eta referendumei iragankortasun legeei jarraituta, independentzia aldarrikatu behar izan zatekeela. Baina egia da ez dakigula zelako azpiko mugimenduak eta nazioarteko presioak dauden tartean. Beraz, oraintxe bertan, oso zaila da analisia egitea, etengabe erratu barik.

Eta urriaren 1a?

Bartzelonan izan nintzen. Hautesleku batzuetara hurbildu nintzen eta polizia-ren kargen lekukoa ere izan nintzen. Sekulako egoera izan zen. Ez nuen Bartzelona horrela ikusi globalizazioaren kontrako manifestazioak egin zirenetik hona. Ilusioa nagusi, ilara handiak egon ziren hautesleketan eta boluntarioek imajinario handia erakutsi zuten, hauteskontziak

eta txartelak ekartzeko, eta dena egoki ibiltzeko. Bestetik, poliziaren erasoei la-saitasunez eta modu baketsuan eman zieten erantzuna. Herri duintasun handia erakutsi zuten.

Zure ustez dagoen konponbide bakarra aipatu duzu hasieran: independentzia.

Bai, herriaren nahia, hau da independentzia, legalki azaltzea. Baina hori lortzeko ematen diren erdiko urratsek ezin dute ekarri ez gogo faltarik, ez frustraziorik. Munduan gauza txarrik badago, hori politikoki frustratuta dagoen herria delako. Aldaketa handiak etorriko dira independentziarekin. Eta ez bakarrik errepublika, baizik eta parte hartze demokratikoaz oso kontziente diren herritarrek osatutako errepublika bat, gauzak aldatzeko ahalmena dutela badakitenak, eta beharrezkoa izanez gero, herriak parlamentua eta instituzioak gainditu ahal dituela dakitenak. Estatua kontra egonda ere, eta Europa alde edo kontra egonda ere, independentzia gertatuko da, munduko beste herri batzuetan ere gertatu delako.

"Askori gertatu zitzaizen moduan, liderrek traizioa egin ziguten sententzia eduki nuen urriaren 10ean"

"Estatua kontra egonda ere, independentzia gertatuko da, munduko beste herri batzuetan ere gertatu delako"

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK
Lasai
Luis M^a Asensio
Terapeuta naturopata
Larrabari, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatiasalai@gmail.com

MARMOLGINTZA
GOYO
SUKALDE-GAINETOAK OBRAN HILERRIAK
Ugaldeguren 1 ind. 18-B nabea
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

IRATXO
gozotegia
larta personalizatuetan
trufak
tutak
pastelak
pastelak
Mikel Zarate, 2 - 3. lonja • Sondika, 48130 • 94 643 89 10

Hirugarren zatiaren laguna

t: Gaizka Eguzkitza / a: G.E. eta A.A.

“Betidanik gustatu jataz umeak eta argi neban hortik abiauko nintzala. Unibersidadean hasi nintzan ikasten, baina itxi egin neban. Beraz, Haur Hezkuntzako goi-mailako zikloa eta Gizarte Integratzaile zikloa ikasi nebazan Zornotzan”. Aratzek igaz bukatu ebazan ikasketak eta maiatzean hasi zan beharrean. “Integratzailea naz Ermuan, adingabeentzako zentro baten. Foru Aldundiak hara bidaltzen dauz arazoak dabezan gazteak. Nik gabaz egiten dot lan, eta gazteen atsedendia bermatu behar dot, eurak lasaitu behar dodaz. Lana gogorra da, batez be psikologikoki, ikusten dozuzan egoerak oso latzak diralako. Dana dala, pozik nabil”.

Aratz txorieritar peto-petoa da, baina ikasketak Durangaldean egin dauzanez, lotura estua dauka eskualde horregaz. Eta hortik etorri jakon errugbian olgetako aukerea. “Nire lagun batek animau niduan Zornotzako talde barri baten olgetako.

“Gitxi nekien errugbiaren inguruan, baina berehala harrapau ninduan. Errugbian giro berezia sortzen da”

ARATZ ASTOBIETA | gizarte-integratzailea

Hirugarren zatia errugbian egiten da: partidaren ostean, epaileak eta jokalariek zerbait hartzen dabe alkarregaz batera, partida, kirola eta bizitzari buruz patxadaz berba egiten daben bitartean. Aratz Astobieta loiuztarrak (1990) benetan gozatzen dau hirugarren zatia. Baina errugbian joatzeaz gainera, loiuztarrak hainbat gauza egiten dau.

Gitxi nekien errugbiaren inguruan, baina berehala harrapau ninduan. Errugbian sortzen dan giroa berezia da: hirugarren zatia egiten dogu taldekideok, beste taldeko kideek eta epaileak. Eta zerbait jaten eta edaten dozun bitartean, partida komentatzen dozu. Horrek izugarrizko anaitasuna sortzen dau”.

Loiuztarrak batez be errugbian epaileagazko daben errespetua azpimarratu dau. “Jauna esan behar deusazu eta bakarrik kapitainak edo entrenatzaileak berba egin deutse. Hori futboleant, esate baterako, ez da gertatzen, eta ni futbol zalea naz eta San Mamesera joaten naz. Askotan nire burua ikusten dot oihukatzen San Mameseko armailetan eta harritzen naz nire jarreragaz: kontraesana da, futboleant oso urduri; eta errugbian, aldiz, oso lasai (kar, kar)”.

Aratz Urgozo Zornotza taldean dabil olgetan, Euskal Herriko Bigarren mailan,

mailarik baxuenean. Bera harroin jokatzen dau, aurrerari. “Aurten gure hirugarren denboraldia izango da eta igazko emoitza hobetzea dogu helburu. Urterik urte hobetu egin dogu: lehendabiziko urtean, entrentzaile barik ibili ginan eta azkenurreko postuan bukatu genduan liga; igaz Aitor Etxebarria jokalaria ohia entrentzaile aritu zan eta izugarrizko aurrerapausoa emon genduan”. Loiuztarra pozik dabil, taldeak nahiko denpora eskatu arren. “Hiru egun entrenetan dogu eta asteburuan, partida. Hegoaldean zehar olgetan dogu eta partida bakotxe-ko egun osoa emoten dozu. Adibidez, Iruñara bazoaz lau ordu emoten dozuz autobusean; gero, partida; eta azkenik, hirugarren zatia. Baina horrek be alde ona dauka, hau da, taldea egiten dozu”.

Errugbiagaz dauen inplikazioak denporea kendu deutso bere “betiko” kirolari, hau da, pilotari, emoteko. Txikitan





POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Lanbide Heziketa eta Bigarren Inbentarioaren Ikastetxea

Urtzagalea Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 00 | info@txorierri.net
48160 - DEIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

ZIENTZIAK BATXILERGOA LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazio teknikaria
Erdi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Produktzioaren Programazio goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrol goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemetako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Salmenten eta Merkataritza Espazioen Kudeaketako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

*“Tamalez, pilo bat
harritu ninduan
basamortuan zenbat
plastiko dagoan
ikusteak. Penagarria da”*

hasi zan esku pilotan olgetan, Larrabetzuko Olarrta taldean, baina 19 urte ebazala, itxi egin eban. Gero, zaletasuna berreskurau egin eban eta palan hasi zan jolasten. Azken lau zapabost urteotan zale-tu mailako hainbat txapelketetan hartu dau parte, baina aurren errugbiari emon deutso lehentasuna.

Sahara

Baina gure Aratz mutil polifazetikoa da eta “familiari esker”, alkartasunak be erakartzen dau. Ildo honeri jarraituz, Saharara joan zan udabarrian emakume-koak ahalduntzeko proiektua bertan garatzera. “Lagun bat Hamadako izarrak Durangoko alkarteko kidea da eta Saharara joateko aukerea emon eustan. Beste kultura bat ezagutzera joan nintzan, baita beste esperientzia bat bizitera be. Oso aberasgarria izan zan. Harrigarria da ikustea zelan bizi diran baldintza horreetan, ze gitxigaz ze pozik bizi ahal dan. Tamalez, pilo bat harritu ninduen basamortuan zenbat plastiko dagoan ikusteak. Penagarria da”.

Alkartasuna ez da familiak emondako gauza bakarra, alde artistikoa be handik jatorkolako. Aratz, 19 urte ebazala, Lainomendi dantza taldean hasi zan eta urte batzuk beranduago Daltondarrak taldea sortu eban lagunakaz. “Taldea lau lagun alkar ikusteko atxakia izan zan, ez da batere serioa, zaletasuna besterik ez. Ni abeslaria naz, musika-tresnarik jotzen ez dodalako (kar, kar). Taldeak betiko euskal kantak jotzen dauz: Anje Duhalde, Mikel Urdangarin, La Polla, Delirium Tremens, Ruper Ordorika... Nik folka egiten dogula esango neuke, gitarra akustikoa, txirula eta kaxa jotzen doguzalako. Tamalez, gaur egun apur bat aparkatuta dago, baina kontzertu batzuk emon doguz, batez be Euskal Herrian zehar, baita Argentinan be”. Aratzi hirugarren zatia gustetan jako: lehen, Daltonarrak taldekoakaz egiten eban, eta orain, errugbi jokalaria kaz.



Txorierriko Lehen Enplegu Azoka, Derioko Kultur Birikan, azaroaren 30ean

Enpresen eta lan bila ari diren edo ibilbide profesionala nola berrorientatu jakiteko informazioa jaso nahi duten gazteen arteko topagunea izango da. EGAZ Txorierrik Gaztedi Bizkaia programaren barruan antolatuko dituen ekitaldietako bat da. Gaztedi Bizkaia Txorierriko Mankomunitateak eta Erandioko Udalak gazteen eta enpleguaren arloan elkarrekin eskaintzen duten programa bat da, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin.

Derioko Kultur Birika, enpresen eta lan bila ari diren edo ibilbide profesionala nola berrorientatu jakiteko informazioa jaso nahi duten gazteen arteko topagune bihurtuko da azaroaren 30ean. Txorierr Meeting Point topagunea egingo da bertan, hau da, Txorierriko Enplegu eta Garapen Ekonomikoko Zerbitzuak (EGAZ Txorierr) Txorierrin antolatzen duen lehenengo enplegu-azoka, Mankomunitateko Gazteria Zerbitzuarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan.

Ekitaldia EGAZ Txorierrik Gaztedi Bizkaia programaren barruan gauzatuko diren jardueretako bat da. Gaztedi Bizkaia Txorierriko Mankomunitateak eta Erandioko Udalak gazteen eta enpleguaren ar-

loan elkarrekin eskaintzen duten programa bat da, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin. Gazteentzako eta gazteen enplegua sustatzeko askotariko jarduerak egingo dira, hala nola 'Ezagutu Aukeratzeko', 'Txorierr Bekak', 'Gaitasun Tailerrak', nazioarteko bekak, eta gazteen autoenplegua motibatze eta sustatzeko jarduerak.

Besteak beste, nabarmentzekoa da Txorierriko Lehen Enplegu Azoka. Horri esker, eskualdeko prestakuntza-eskaintza ezagutzeko aukera izango da, eta IDDEK Ingeniería bezalako punta-puntako enpresen standak eta Parke Teknologikoko enpresen zenbait ordezkari izango dira bertan. Gainera, mahai-inguru bat egingo

da enpleguaren etorkizuna lantzeko, hainbat sektoretatik begiratuta: ingeniaritza, elikadura eta bioteknologia, besteak beste.

'Gaztedi Bizkaia' programak, halaber, 'Ezagutu Aukeratzeko' ekimena eskainiko du Txorierrin. Ekimen horretako jardueri ekin zaie jadanik, Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko eta Batxilergoko ikasleei enpresa-errealitatea hurbiltzeko eta beren lan etorkizuna bideratzeko eta goimailako ikasketak aukeratzeko laguntzeko. Programari esker, eskualdeko 200 ikasle baino gehiago arituko dira hainbat jardueratan: egonaldiak profesionalekin enpresetan, bisitak enpresetara, mahai sektorialak, profesionalen bisitak ikastetxee-





tara... BTEK jardunaldia ere egingo da, DBHko 3. eta 4. mailan dauden seme-alabak dituzten familiak orientatzeko, eskualdeko prestakuntza eta enplegu-eskaintza ezagut dezaten. Jardunaldi hori azaroaren 21ean egingo da, eta lanbide-heziketako, unibertsitateko, enpresen munduko eta enpleguaren arloko lau hizlarik parte hartuko dute bertan.

Bestalde, EGAZ Txorierri eskualdean kudeatzen duen Global Training programaren barruan, merkataritzaren, ingeniartzaren eta arkitekturaren arloko profila duten zazpi pertsona, azaro eta abendu artean, hasiko dira praktika profesionalak egiten atzerriko herrialdeetan (Kolonbia, Polonia, Txile, Erresuma Batua, India eta Mexiko). Hamar hilabetez egongo dira han. Global Training programa goi-mailako titulua duten gazteentzat da eta aukera ematen die prestatzeko eta esperientzia profesionala eskuratzeko, atzerrian praktikak eginez.

Datozen hilabeteetan, gainera, bi gaitasun-tailer egingo dira hainbat arlotan eragina izateko, enplegarritasunari egokituta eta kalitatezko enplegua sustatzeko aldera. Hala, azaroaren 13tik 16ra bitartean eta abenduaren 11tik 14ra bitartean prestakuntza emango zaie 18-35 urte arteko 8 pertsonako bi talderi, hainbat arlotan: egonkortasun emozionala, adeitasuna, buru-irekiera, adorea eta energia.

*Lan bila dabiltzan
edo ibilbide profesionala
berrorientatu nahi
duten gazteei
zuzenduta dago*

*Gazteen enplegua
sustatzeko askotariko
jarduerak egingo dira:
nazioarteko bekak,
autoenplegua...*

Herritar guztiak genero indarkeriaren aurka, baita azaroaren 25ean ere

Elkarretaratzeak, ibilaldiak, hitzaldiak, gazte eta haurrentzako jarduerak, eta abar. Txorierriko Mankomunitateak guztiok animatzen gaitu azaroaren 25erako antolatutako ekintza ugarietan parte hartzera. Horrela, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko egun horretan ere gaitz horren aurka gaudela erakutsiko dugu.

Azaroaren 25a gero eta egun garrantzitsuagoa da Txorierriko Udalen agendatan. Egun horretan emakumeen eta gizonen arteko desberdinkerien aurka borrokatzeko premia ikusgai jartzen da, horiek baitira indarkeria matxistaren oinarriak. Emakume guztiei eremu publikoan nahiz pribatuan eragiten dien egiturazko indarkeria da; zuzeneko indarkeriaz ari gara, baina baita indarkeria kulturalaz edo sinbolikoaz ere.

1 Txorierriko ENPLEGU azoka

Azaroak 30
10:00 - 14:00 **2017**

Kultur Birika • Anboto Plaza, 5 (Derio)

Zure etorkizuna, zugandik urrats batera


MAHAI INGURUA
"Sektore estrategikoak eta Enplegua"
Parte-hartzaileak

Izena emateko:
www.txorierri.eu

Erakutsi zure talentua! Izan zure etorkizunaren protagonista
Topaketak profesionalekin • Bideocurriculumaren standak

Hiru kilometroko memoria bizia

Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboa erabiltzaile gehien duten Euskal Herriko artxiboetarikoa bat da. Derioko Seminarioan dago eta, Antonio Añoveros gotzainak bultzatuta, 1976. urtean sortu zen helburu bi betetzeko: alde batetik, parroketako dokumentazioa modu egokian gordetzeko; eta bestetik, beren familiaren historia ezagutu nahi zuten lagunei erantzuna emateko. Gaur egun, 10.000 artxibo-kutxa daude bertan, ia hiru kilometro hartzen duten dokumentuak. Euren balioa oso handia da.



t/a: Itxaso Marina Ondarroa

Anabella Barroso artxiboaren zuzendaria da 1997. urtetik hona, eta berarekin batera Cristina Castillok eta Elena Cortazarrek lan egiten dute, artxiboko dokumentuak zaintzen eta publikoari arreta egiten. Esan beharra dago, Estatu mailan, Elizaren artxibategi batean lan egiten duten emakume bakarrak direla. Gainera, Elizaren Estatuko artxiboetan lau zuzendari laiko baino ez daude eta Anabella horietako bat da. Erronka eta poztasuna bikoitza da, beraz. Artxiboaren muinak bere eskutik ezagutu ditugu.

“Hiru eginkizun nagusi ditugu: dokumentuak jasotzea, horiek era egokian jagoatea eta dokumentuok, eta ondorioz Bizkaiaren historia, ezagutzera ematea”, azaldu digu. Artxiboan dagoen dokumenturik zaharrena 1334. urteko pergaminu bat da, eta bere garaian liburu bati azala jartzeko erabili zen musika-pergaminu bat ere badago. Hori XII. mendearen amaierakoa edo XIII. mendearen hasierakoa izan daiteke. “Egia da dokumentu gehienetan parrokiaren bizitza adieraz-

ten dela: bataioak, ezkontzak, ehorzketak, elizen bizitza ekonomikoa eta erlijio-soa... Baina hori herri bizitzari dago lotuta, mendeetan Eliza denaren gunea izan zelako. Hemen dugun bataioko dokumenturik zaharrena 1501. urtekoa da. Erregistro Zibila 1872. urtera arte sortu ez zela kontuan hartzen badugu, esan dezakegu artxiboan 1501. urtetik ia gaur egun arteko biztanle-errola dugula, Frankismora arte ohikoena zelako umeak bataiatzea”.

Sustrai bila

Artxibora gehienbat familiaren zuhaitz genealogikoa osatzen dabiltzan pertsonak jotzen dute. Sustrai bila dabiltzanak ere hurbiltzen dira Deriora, eta askotan oso urrunetik datoz; Hegoamerikatik, batez ere. Abizenak aldatu nahi izatea, jarauntsiak dokumentatzea edo ezkontzeko izapideak betetzea beste arrazoi batzuk dira artxiboko zerbitzuak erabiltzeko. Baina artxiboa balio handiko informazio iturria ere bada historialarientzat. “Parrokietan badaude fabrika-liburuak izenekoak eta bertan parrokiaren

*Dokumentuak jasotzea,
horiek era egokian
jagoatea eta dokumentuok
ezagutzera ematea
ditu eginkizun*

*Bertan dagoen
dokumenturik
zaharrena 1334. urteko
pergamino bat da*

datu ekonomikoak batzen dira, erretaulen eraikuntzari buruzko datuak, eliza beraren eraikuntzarenak... Ondorioz, informazioa lortu daiteke garaiko ekonomia eta arteari buruz, esaterako”. Bestetik, Trentoko Kontzilioan, XVI. mendean, ezarri zen gotzainek parrokia guztiak bisitatu



Herriko Plaza, 3 – 48160 DERIO
Tel. 94 454 00 62 – Fax. 94 454 27 38
euskaltegia.txorierri@bizkaia.org

HASIERAKO MAILA
GURASOENTZAT
SONDIKAN BERTAN!

17/18
KASTURTEA
Matrikula epea ZABALIK



**UDAL
EUSKALTEGIAK**
euskara klaseak

www.udaleuskaltegiak.eus

*Artxiboa balio
handiko informazio
iturria da
historialarientzat*

*219 parroketako
funts eta
parrokietakoak ez
diren 70 funts dituzte*

behar zituztela eta bisita horiek bisita-liburuetan jasotzen ziren. "Inbentarioa berrikusten zuten, liburuak... baina bisita-liburuetan informazioa ere azaltzen zen, garaiko ohiturei buruzko datuak ematen dizkiguna. Adibidez, idiak elizara sar ez zitezen edo emakumeak sakristiara bakarrik erratzez garbitzera sar zitezen...". Elizari hamarrenak ordaintzen zitzaizkion aspaldian eta, horretarako, herritarrek sagarrak, txakolina, arraina... erabiltzen zituztenez, dokumentuek informazioa eman diezagukete uztei buruz. "Are gehiago, klima ikertzeko ere badira baliagarriak: prozesioan irten bada, lehortea zegoelako, edo uholdeak...". Era berean, bataio eta ezkontza-agirietan arakutzen badugu, gurasoen eta aitita-amamen gaineko informazioa ere ezagutu dezakegu: izen-abizenak, nongoak ziren, ogibideak... "Dokumentuek ikertzeko aukera zabala ematen digute. Euren balioa paregabea eta ordezkazina da".

Artxiboa astelehenetik eguenera dago publikoari zabalik, astelehenetan eta egueneretan, 9:00etatik 14:00etara, eta martitzenetan eta eguaztenetan, 9:00etatik 18:00etara. Aurretiko hitzordua eskatu behar da. Dokumentu originalak kontsultatu daitezke, bakarrik mikrofilmata edo digitalizatuta ez badaude. Izan ere, artxiboan mikrofilmazio eta digitalizazio lanak egin dituzte, dokumentuen iraupena bermatzeko. "Originalak errazak dira irakurtzen, beharbada XVI. mendeko kaligrafia apur bat ezagutzea komenigarria da". Dokumentuak webgunean ere kontsultatu daitezke, Eusko Jaurlaritzarekin eta beste elizbarrutikoekin batera datuak in-



dexatu eta on lineko datu-base batean sartzeko egitasmo batean hartu zutelako parte. Kontsulta artxiboan bertan zein webgunean doakoa da, hala ere, transkripzio edo erreprodukzio bat nahi izanez gero, hori ordaindu behar da. "Artxiboa publiko guztiei dago zuzenduta. Helburua da hona etorri eta beren familiaren historian arakatzera ausartzen daitezen. Hori bai, batzuetan gustatuko zaizu topa-

tuko duzuna; baina beste batzuetan, ez". Bila dabilena topatu ezean, orientabidea ere ematen diote erabiltzaileari, nora jo behar duen jakin dezan.

Etengabeko lana

Artxiboan Bizkaiko Elizbarrutiari lotutako erakunde guztien dokumentazioa jasotzen dute, hala nola parrokiarena, ikastetxeena, irratiena eta Caritasena. Guztira,



SUIT DELUX
ATSEDEEN MARKA EKSLUSIBOAK

DERIOKO SEMINARIOA
944 545 147

LEIOA, La Avanzada 80.
944 316 516

WWW.SUITDELUX.COM



**Pufa
oparitzat***
Stressless® besaulki
bat erosiz gero

Imajina konforta
2017ko azaroaren 18ra arte



Norvegiar agintea

Artxiboak 1.300 metro karratu ditu gaur egun, eta erreserbako beste 800 metro karratu

219 parroketako funts eta parroketakoa ez diren 70 funts dituzte. Dokumentazioa paperean ez ezik beste euskarri batzuetan ere badute, esate baterako, binil diskoetan. "Dokumentazioa koadernatuta dator batzuetan, eta beste batzuetan orri solteak dira. Noizbait ez dakigu zer den jaso duguna eta horri identitatea ematen joan behar gara, zer den pixkanaka-pixkanaka ikusi... Etengabeko lana da, dokumentazioa etengabe jasotzen dugulako. Lana dugu bizitza honetarako eta hurrengorako ere bai". Erregistro sakramentalak 100 urtean gorde behar dira parroketan, baina artxiboan 1940. urtera arteko dokumentuak batu dituzte. "Egoeraren arabera izan da hori, dokumentuak gordetzeko leku gutxi eduki dutelako, era egokian kontserbatzen direla bermatzeko, edo ikerlarien lana errazteko".

Materiala jasotzen dutenean, hura tratatu eta garbitu egiten dute. Eta beharrezkoa bada, fumigatu ere egiten dute. Dokumentuak pH neutroa duten kutxetan sartzen dira, eta, euren zaintzerako, argi, temperatura eta hezetasun-baldintza egokiak dituzten gordetegietan sartzen dituzte. Artxiboak 1.300 metro karratu ditu gaur egun, eta erreserbako beste 800 metro karratu. Bertan bost gordetegi daude. "Duten adina kontuan hartuta, dokumentuen % 90 egoera onean ailegatzeko da, eta saiatzeko da ahal den neurrian txarto daudenak zaharberitzen". Hurrengo erronka dokumentu elektronikoak ondo kontserbatzea da. Anabellaren esanetan, artxiboaren eginkizuna etorkizuneko memoria gordetzea ere bada. "Artxiboa

Ícaro

Bizkaiko Elizaren Historia Artxiboaren barruan, Ícaro zentroa sortu da. Hori Historiaren Ezagutzarako Zentro Aurreratua da eta arbitxoaren eginkizunak ezagutzera ematea du helburu: jaso, gorde eta zabaltzea. "Erakusketa iraunkor bat dago eta ikastetxei zuzendutako hezkuntza-programa bat ere badugu. Izan ere, gaur egungo

gazteentzat denak oso gutxi irauten du, eta gure erronketariko bat da ikustaraztea oso inportantea dela dokumentu hauek guztiak gordetzea, hau da, memoriaren balioa helaraztea".

Bisita gidatuak ere egiten dituzte eta azalpenak ematen dituzte artxiboan dituzten dokumentuei buruz, eta ikerketarako dituzten aukerei buruz. Antzinako kaligrafia tailerrak ere antolatzen dituzte, eta familian egiteko ekin-tzak sustatzen dituzte.



ez dago hilik; zerbait bizia da. Eta gaur egungo memoria jasotzen jarraitu behar dugu, datozen mendeetako herritarrek gure berri eduki dezaten. Saiatu behar gara, behintzat".

Dokumentuak-eta etorkizunerako gordetzeko nahi horren haritik, artxibotik arau batzuk ematen dizkiete Elizbarrutia- ren menpe dauden erakundeei agiriak eta paperak nola egin eta zaindu behar dituzten azalduz, eta noiz arte. Era berean, erakunde horiek oso datu-bolumen

handia dute esku artean, kasu askotan datu pertsonalak direnak, eta artxibotik ere datu horiek zelan babestu behar diren azaltzen zaie.

Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboa

Larrauri, 1 A – 5. solairua

48160 Derio

94 406 24 91

<http://www.aheb-beha.org>

Facebook: AHEB BEHA

Twitter: @AHEB_BEHA

ASTIKENEMOTOR
www.ASTIKENEMOTOR.com
DERIO - 946 451 781

BIZKARGI
TABERNA ETA JANARIA
Urkiola, 4 DERIO 944541655

ELORRIETA
INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Urbe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

Konekta zaitez gurekin!



Facebook:
aikoraldizkaria




Twitter:
@Aikortxorierrri



Instagram:
aikor.aldizkaria



Webgunea:
www.aikor.eus



Zure argazkiak eta albisteak bidali




WhatsApp:
688 86 41 35



E-posta:
aikortxori@aikor.com

Parte hartu aikor.eus webgunean

Erregistratzeko, webgunearen goiko aldean ageri den SARTU botoiari klik egin



ERABILTZAILE BERRIA NAIZ ETA IZENA EMAN NAHI DUT aukeran klik egin

Kide bezala erregistratu nahi baduzu, eta zure **edukiak argitaratzeko** (argazkiak, hitzorduak, albisteak...) erabiltzaile arrunta bezala izena eman behar duzu, eta amaieran, aikortxori@aikor.com helbidera mezua bidali behar duzu zeure nahia jakinarazteko.

Eguraldi ona jai-batzordeak herritar guztiei zuzendutako jai-egitarau dotorea antolatu dau. Halan, zanudioztar guztiek topauko dabe zer egin eta zegaz disfrutau azaroaren 10etik 12ra bitartean. San Martin jaiak indartsu datoz aurten eta xehetasunak Manu Francisco kultura zinegotziak azaldu deuskuz.

Txupina azaroaren 10ean, barikuan, botako da eta pregoia oso pertsonaia bereziak irakurriko dau: Siri-k, Appleko gai-luetako abotsak. "Siri-ri Iratxe Gómez Casado zamudioztarrak ipintzen deutso abotsa, eta pentsau genduan bitxia izango zala pregoia konpainia horretako tabletetan edo telefono mugikorretetan entzungai dagoen laguntzaile-aplikazioak emotea. Pregoa emoteko modu barria izango zala". Pregoi bitxi horren ostean, kalejirea egongo da Bertokoko musika-riakaz eta Gazte Elai txistu taldeagaz. Kartel lehiaketako sariak be banatuko dira. Iluntzeko 20:00etan Zamudio Izar lehiaketara izango da probalekuan. Franciscoren esanetan, oso ekintza parte-hartzailea eta arrakastatsua izan ohi da hori. Zamudioztarrek mozerroa jantzi eta euren abileziak erakusten dabez jenteaurrean. "Mortzilak eskiniko dira txosnetan, eta kontzertuak hasi aurrean suak botako dira. Hori jaietako nobedadeetariko bat da". Trikiziok eta Dj Portik musikea ipiniko deusie barikuko gabari.

Suak, jaietako nobedadeen artean

Con alfileres herriko antzerki taldeak emanaldia eskiniko dau lehenengo aldiz, eta kontzertuen artean Vendetta taldearena da aitagarria. Pregoa Appleko abotsak, Sirik, emongo dau; edo gauza bera danak, Iratxe Gómez zamudioztarrak.



Azaroak 10, barikua

- 19:00 Txupina eta gozokiak bertarantzen diranentzat
- Pregoa, Iratxe Gómez Casadoren eskutik (Siri)
- Kalejirea, Bertokogaz eta Gazte Elai txistu taldeagaz
- Kartel Lehiaketako sariak banatzea
- 20:00: Zamudio Izar Lehiaketa, probalekuan
- Mortzila txosnatan eta su artifizialak
- 22:30: Kontzertuak: Trikizio + Dj Porti

Azaroak 11, zapatua

- 11:00 Puzgarriak, Sabino Arana plazan
- 12:00 Kalejirea
- Mezea eta kopaua, eleizpean
- 16:00 Karta txapelketa, Adintsuen Etxean
- 18:00 Euskal dantzak HIRU BAT dantza taldeagaz, frontoian

Egitaraua



Vendetta taldea.

- 20:00 San Martin XXXI. Kontzertua, San Martin eleizan. High Felicity eta Zamudioko Kamara Korala
- Batukadea, Ibarretukada taldeagaz
- 23:00 Kontzertuak: Gato López (SKA-P taldeari tributua) + Vendetta + Dj Markelin

Azaroak 12, domeka

- 10:00 Eskupelota partiduak, frontoian. Arbolantxa pelota alkarteak antolatua
- 11:00 Mezea
- 12:00 Umeentzako jolasak, Kultura Etxean. Elizalde IGEk antolatua
- Kalejirea
- 18:00 *El rey Tiburcio busca novia* antzerki sainetea, probalekuan, Con alfileres antzerki taldearen eskutik
- 19:00 Boca Beats taldea komikoa, probalekuan

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212. Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37"N

www.gaminiz.com

**ZAMUDIOKO
BATZOKIA**

Gosariak
Eguneko menuak
Plater konbinatuak
Mortzila

Arbolantxa, 5
94 474 37 62

*Jaietan be,
euskara jalgi hadi
Zamudioko herrira*

LAGATZU
ZAMUDIOKO
EUSKERA
AUKARTEA
www.lagatzu.org

**zamudion
euskeraz?
hoba ez!**

OK
OAKLAND
ENGLISH

IKASTARO TRINKOAK, UDAN
MAILA GUZTIAK

946522857
LEHENDAKARI
LEIZAOLA PLAZA,2
48170 ZAMUDIO

CB *Heapandegia*
Ana Belén
estetika - solariuma

Perretxiko, 4 lonja - Tel.: 94 403 68 60 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

HORTZ KLINIKA
GANDIAGA
94 608 62 30 - 31
klinikagandiaga@euskalnet.net

- Odontologia orokorra
- Implanteak
- Ortodontzia
- PADI

Txantxangorri, 2 - lokala 1. ezk.
(sarrera Lehendakari Agirre Plazatik)
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Zamudion
Elkarte Teknologikoa, 105.
T 94 431 71 36
E zam@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Gorbeia, 7 Behea
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 452 21 41
Faxa: 94 452 21 42
www.gestionzamudio.com
gestionzamudio@gestionzamudio.com

Gestión Zamudio

Aholkularitza Fiskala

Jon Vázquez García
AKTUARIO-EKONOMILARIA

Garmendia ardoak



Pinoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tél./Faxa: 94 452 00 49

Gazteentzako kontzertuak

"Zapatua herritar gehien batuko dan eguna izango da, ziur asko". Umeei zuzendutako puzgarriak eta kalejirea egongo dira goizean, eta mezearen ostean kopaua eskiniko da. Arratsalderako karta txapelketea antolau da Adintsuen Etxean eta, HIRU BAT dantza taldearen eskutik, dantzen agerraldia egongo da frontoian. Zamudioko Kamara Koralak 30 urte bete dauz eta, urteurrenaren haritik, oso ekitaldi berezia antolau dabe High Felicity taldeagaz batera. Hitzordua 20:00etan ipini dabe eleizan. Ibarretukada taldearen batukadea be entzungai izango da herriko txokoetan. "Musika taldeak ekarteko orduan, batez be gazteen eritxia euki dogu kontuan. Vendetta taldea arituko da eta hareek baino lehen, Gato López taldea, SKA-P taldearen abestiak jotzen dabezanak. Espero dogu jentetza handia batzea zapatuko kontzertuetan".

Gau luze baten ostean, eskupeleta partiduak egongo dira frontoian, 10:00etatik aurrera, Arbolantxa pelota alkarteak antolatutak. Mezea eta Elizalde IGEk prestatutako umeentzako jolasak be egongo dira. Baita kalejirea be. "Con alfileres antzerki taldea talde barria da, eta autodidakta, eta lehenengo aldiz aurkeztuko dabe lan bat". Antzerki sainetea izango da: *El rey Tiburcio busca esposa*. Boca Bits talde komikoaren emanaldiagaz amaierea emongo jake aurtengo San Martin jaiei.

*Vendetta taldearen
kontzertuan
jentetza handia
batzea
espero da*



Zamudioko XXXII. Azokea

Azaroaren 4an eta 5ean egingo da eta, aurrekoetan moduan, Euskal Herriko nekazaritza-produkturik onenak ikusi eta erosteko aukerea egongo da bertan. Gozogintzak eta artisautzak be euren lekua eukiko dabe azokan, eta Limusin Euskadiko txapelketea izango da 25. aldiz. Era berean, dastazeak eta erakustaldiak izango dira.

Azokeari zapatuan emongo jako hasierea. Egun horretan V. Txokolate, Gozogintza eta Artisautza Azoka egingo da, eta euskal hanburgesa eta tokiko arkumekiak dastatu ahalko dira 2,5 eurotan, txartelak aldeztu aurretik erosten badira. Tokiko garagardoa be eskainiko da euro batean; eta ura eta freskagarriak, 0,5 eurotan. Azokan gastetan diran bost euro bakoitzeko, txartel bat jasoko da herriko tabernetan kafe bat edateko. Txartelak azaroaren 3ra arte egongo dira salgai Adintsuen Etxean eta Lagunandre alkartearen lokalean (astelehenetan eta eguaztenetan, 17:00etatik 19:00etara).

Arratsaldean musikea egongo da Kultur Etxean.

Azokearen egun nagusia domekea izango da. Kotxozulo parkean, 90 saltoki baino gehiago ipiniko dira eta, besteak beste, honeek topauko dira han: ortuariak, frutea, gaztaia, txakoli, ezti eta euskal pastela. Aurreko lerrootan aitatu moduan, Limusin txapelketea egingo da eta 110 buru aurkeztuko dira. Emeak 12 ataletan lehiatuko dira; eta arrak, lau ataletan. Atal bakoitzean hiru sari emongo dabez eta sari bereziak be izango dira. Animaliak zapatuan, 10:00etan, pisatuko dira. Emeen lehiaketea 12:00etan izango da; eta arren lehiaketea, 17:00etan. Animaliak domekan ipiniko dira enkantean, eta ondoren, sariak emongo dira.

Idi-probak

Azaroaren 3an, 4an eta 6an, 20:30ean. Zamudioko lagun probazaleak taldeak antolatua. Sarrerea doakoa izango da.

AmAr
ileapaindegia

Astearte-ostiralea:
9:00-19:00
Laburuntza:
8:00-13:30

Urbe plaza, 1 behe
Zamudio
94 452 0419

Aresti
Harategia
Urdaitegia

Oiz, 1. Zamudio
94 452 00 06

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WiFi gunea



TOLDOS TXORIERRI
TOLDOS B. GOYOAGA

Lona industrialak
Sareak
Eguzki-ohialak
Alokatzeko lonak



Torrelarragoiti ind. P2
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44
Gasolindegia ondoan

Susterrak Taberna

Morfzilak
barikuan, zapañan eta asfelehenean



Zamarrapa Enparantza, 2 - 944069027 - 48170 Zamudio



ASADOR FUENTENE berria
"lur eta itsasoko baserria"

Gosariak
Afariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Okela eta arraina
txingarretan erreta

LEKUNBI-AUZOA 26
ZAMUDIO (BIZKAIA)
94 452 23 79
www.asadorfuenteneberria.com



Carrefour express

ORDUTEGIA
Asteburuetatik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Pikoteo Taberna

KAXOLAK - OLAGARROA
TXIPIROIAK - ODOLOSTEAK

LEHENDAKARI LEIZAOLA PLAZA, 6
48170 ZAMUDIO
689 213 789



Magalarte txakolina

Artxabaletako txakolina

75 cl.
10,75 % vol.

Bizkaiko Txakolina
Denominación de Origen



hotela jatetxea aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com



luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (lonja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia



Ale-apaindegia
Mª Antonia Llodio

Txipiroi etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



Restaurante JANA JATETXEA

Tel./faxa: 94 452 06 64
Torrelarragoiti ind. P-7
48170 Zamudio (BIZKAIA)

Eguneko menuak
Menu bereziak
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak



IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra

Espezializatea:
Xalfo-lanak
Zoruak

944522910 - 665703312 - 652772018



Azken hamarkadotan, pinuan oinarritutako monolaborantza nagusitu da Bizkaian. "Baina, gaur egun beste alternatiba bat eman behar diogu pinuari, horri lotuta hainbat arazo agertu direlako: emankortasuna gero eta txikiagoa da; pinuak gaixotasun batzuk zabaldu ditu; egurraren prezioa ia erdiraino jaitsi da azken 15 urteotan... Gainera, José Miguel Edeso Geografian doktorearen iritziz, monolaborantzak kalte egiten dio lurrari, elikagaiak kentzen dizkiolako. Horiek oso garrantzitsuak dira zuhaitzak behar bezala hazteko", azaldu digu Kekok.

Keko bat dator Edesorekin eta, bere ustez, basoa beste era batean kudeatu behar da, lurrari elikagairik ez kentzeko. Gaur egun, baso bateko zuhaitz guztiak aldi berean mozteko joera dago berton, baina Europa mailan, aldiz, beste eredu bat daukate: hango basoetan, adin ezberdinetako zuhaitzak daude eta ez dituzte guztiak aldi berean mozten. Bertako basoak bultzatzen dituzte han. Baso basatien egitura antzekoa dute eta goi-mailako egurra ematen dute. Eta horregatik, hain zuzen ere, ez dute zuhaitz guztiak aldi berean mozteko beharrik. Izan ere, ondo landutako zuhaitz baten truke dirutza lortu ahal da.

Larrabetzun lan egiten duen biologo kantabriarrak ildo horri jarraitzen dio,

Pinuak badauka alternatiba bat

Keko Alonsok Besaia enpresa sortu du, bertoko basoetan eta bioaniztasunean oinarrituta dagoena, beste basogintza mota bat eskaintzeko. Bere filosofia Goikoelexeako eremu batera eraman du. Keko ezaguna da Larrabetzun, herriko lorategietan Gym Berdea proiektua garatu duelako.

hau da, naturatik gertu dagoen basogintza bultzatzen du. Eta bere filosofia Txorierrira ekarri zuen orain dela urte bi, Larrabetzuko nekazari ekologiko bateko lur-eremura, alegia. Goikoelexean dago eta hasiera batean, gaztainondoa eta intxaurrendoa landatu nahi zituzten. Hala ere, eremua pinuz eta eukaliptoz inguratuta dago eta oso argi gutxi dauka. Beraz, azkenean goi-mailako egurra ekoizteko basoa jartzea erabaki zuten.

"Guk ezer egin ez bagenu, berez, hartzak, hurrondoak eta zumalakarrak sortuko ziratekeen bertan. Eremu horretan han hazitako zuhaitzak zuzen jarri genituen eta hutsuneetan, azkarrago hazten diren beste zuhaitz mota batzuk landatu

genituen: gereziondoak, lizarrak, astigar zuriak eta ezkiak. Eremu horrek argi eta garbi erakusten digu basoaren prozesu naturalak, hau da, birsorkuntza naturala, aprobetxatzea oso errentagarria dela. Gurea bezalako basoek onura baino ez dute ekartzen, lur emankorra, bioaniztasuna, uraren eta eguraldiaren zikloa sustatzen dituztelako.

Kolore guztietako basoak

Hala ere, Bizkaiko Foru Aldundiak ez ditu horrelako basoak babesten, batez ere diru-laguntzarik ematen ez duelako holakoetarako. "Garai txarrak dira bertoko basoetarako: gutxi daude eta gainera oso sakabanatuta. Oso kezagarria da. Hor-

*"Larrabetzuko eremuak
erakusten digu basoaren
prozesu naturalak
aprobetxatzea oso
errentagarria dela"*

*Kolore guztietako
basoak erakundeak
bertoko basoa zabaltzea
eta bioaniztasuna
sustatzea du helburu*

taz, hainbat enpresa, elkarte, teknikari eta aditu batu gara eta Kolore guztietako basoak erakundeak sortu dugu. Laburbilduz, bertoko basoa zabaltzea eta bioaniztasuna sustatzea du helburu. Gure ustez, Aldundiak gure proposamena eremu publikoetan bultzatu beharko luke eta jabe pribatuei gauza bera egiteko erraztasunak eman beharko lizkieke.

Kolore guztietako basoak erakundeak ekainean bildu ziren Aldundiarekin. "Gurea proposamen serioa zela esan ziguten eta hori aztertzeko konpromisoa hartu zuten. Azaroaren 16an berriro batzartuko gara". Bestetik, urriaren 24an erakundeak bera aurkeztu zuten jendarean. Kolore guztietako basoak elkarrekin hainbat babes jaso ditu orain arte: 40 erakunde, Euskal Herriko Unibertsitateko hiru sail, 50 lagun ezagun baino gehiago, Toti Martínez de Lezea idazlea, Joaquín Araujo naturalista eta Ana Urrutia kazetaria, barne...

"Gure mendiak bidegurutzean daude: pinuak egon diren eremu askotan, eukaliptoak landatzen dute gaur egun, neurri handi batean Aldundiak emandako diru-laguntzei esker. Baina eukaliptoak pinua baino okerragoa da, lurrarentzat erasotzaileagoa. Horren ordez, alternatiba ekologiko bat daukagu eta ezin diogu horri bizkarra eman. Baso anitzak eta osasuntsuak seme-alabei utzi nahi dizkietenak animatzen ditut gurekin harremanetan jartzera eta guri babesa adieraztera, guztion artean helburua lortu ahal dugulako".



SARRERAK AURRETIK EROSTEKO:
TXARTELEDEGIAN
Edozein ekintza hasi baino
ordu bat lehenago



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

ANTZERKIA

FUERA DE JUEGO
Borobil Teatroa
Komedia
Azaroak 18, 20:00
Prezioa: 10 €



OPERACIÓN CACAHUETE 2: MISION SALVAR EL PARQUE
95' AG (2D)
Azaroak 5, 17:00

TOC TOC
96' EG-7 (2D)
Azaroak 5, 19:30

OVEJAS Y LOBOS
81' AG (2D) **EUSKARAZ**
Azaroak 12, 17:00

HANDIA
114' EG-12 (2D) **EUSKARAZ**
Azaroak 12, 19:30

KIKORIKI
90' AG (2D)
Azaroak 19, 17:00

SOLO SE VIVE UNA VEZ
90' EG-7 (2D)
Azaroak 19, 19:30

GATOS, UN VIAJE DE VUELTA A CASA
90' AG (2D)
Azaroak 26, 17:00

VOLAR
75' EG-15 (2D)
Azaroak 26, 19:30

4TI NEA

ETA ABENDUAN...
ALIZIA LURRALDE MIRESGARRIAN (ANTZERKIA)
ALGO MUY GORDO
LIGA DE LA JUSTICIA
PADDINGTON 2

2D: 4 € 3D: 6 €

*oharra: produktorearen behar-izanen arabera programazioak aldatuak izan daitezke

Arimarako dokumentalak

t/a: Itxaso Marina Ondarroa

AL BORDE FILMS | Erandiogoikoko ekoiztetxea

"Al borde films" ekoiztetxea Anak eta Paulak duela urte batzuk Kanarietara egindako bidaian hasi zen. Hara migrazio emozionalei buruzko lan bat egitera joan ziren. "Argi genuen dokumentalak egin nahi genituela, eta, proiektuak mugitzeko orduan, babes legala edukitzeko beharra ikusi genuen. Kooperatiba aukeratu genuen era juridikotzat, ekonomia sozialaren barruan egon nahi genuelako".

Euren esanetan, dokumentalak istorioak era hurbil batean kontatzeko aukera ematen die, era introspektiboago batean, eta askatasuna, adierazteko eta komunikatzeko orduan. Nolanahi ere, dokumentalez gainera, denetariko lanak egiten dituzte, hala nola publizitate arlokoak, korporatiboak eta zineari lotutakoak. "Jaten ematen diguna arimarako diren lanekin uztartzen dugu, eta batzuetan arimarako ere diren lan korporatiboak egiteko zortea daukagu".

Dokumental bat egiteko orduan, presarik ez edukitzea ezinbestekoa dela azaldu digute, eta gakoa ideia hozten ez uztean dagoela. "Osterantzean, lana bertan behera uzten duzulako. Orain, adibidez, oso dokumental ederra egiten gabil-tza Zestoan, Euskal Herrian daukagun denbora-kontzeptuari buruz. Eta gelditzen bagara, apur bat hil egingo da. Izan

Ana Sernak eta Paula Iglesiasek Al borde films ekoiztetxe kooperatiboa sortu zuten 2015. urtean, Erandio Goikoan. Proiektuz eta etengabeko ikaskuntzaz betetako zurrumbilo batean murgilduta ibili dira urte bi hauetan, eta orain aldaketa-momentuan harrapatu ditugu. "Gelditu, berrikusi eta eraikitzeke unea da".

ere, jendeak bere gauzeekin jarraitzen du eta lanari arreta emateari uzten badiogu, zailagoa izango da hari berriro ekitea". Egileen eta dokumentalaren protagonisten artean sortzen den lotura emozionala ere azpimarratu dute. "Fikzioa denean, filmatzea denbora-tarte zehatz batean egiten da, baina dokumental bat egiteko, urte bat, urte bi edo hiru urte eman ahal dituzu. Ondorioz, oso harreman estua sortzen da bertan parte hartzen duen jendearekin. Oso esperientzia bizia da".

Dokumentalak egiteak badauka alde ona, pertsona bakar batek ere egin ditzake. Horrela, bada, Ana eta Paula ederto moldatzen dira elkarrekin lan egiten: bata kamerarekin, eta bestea soinuarekin; biak gidoiarekin eta zuzendaritzarekin. Baina lanaren gainontzeko fase guztiei ere heldu behar diete, eta badaude egoerak haiek bakarrik heldu ezin dietenak. Kasu horietan adituen laguntza behar dute. Ondorioz, finantzazio bila ibili behar dute. "Ekoiztetxe gazteontzat zaila

*Dokumentalak
istorioak era hurbil
batean kontatzeko
aukera ematen die*

*"Oso harreman
estua sortzen da
dokumentalean parte
hartzen dutenekin. Oso
esperientzia bizia da"*



da diru-laguntza publikoak lortzea, horiek ibilbide luzea daukatenei daudelako zuzenduta. Bidegabekia da, Estatu mailan Almodovarren ekoiztetxearekin sartu ahal zarelako lehian. Guk orain arte egingadako guztia guk geuk ekoiztu dugu beste lan batzuei esker. Hala ere, egia da sortzaile gazteei zuzendutako diru-laguntzak egon badaudela, baina banaka batzuk baino ez dira. Finantzazio pribatua lortzen ikasi behar dugu, beraz”.

Gogotsu

Al borde films ekoiztetxea gizarte-ekimeneko kooperatiba da. “REAS sarea-ren barruan gaude. Hori ekonomia alternatiboa eta solidarioaren sarea da, eta bat egiten dugu euren filosofiarekin. Gainera, sareko beste entitateen laguntza jasotzen dugu eta sinergiak sortu dira gure artean. Adibidez, entitate horietako batzuen kanpainak sustatzeko lanetan hartu dugu parte. Askatasuna daukagu sortzeko orduan eta gaiak gizarte arlokoak izaten dira. Pozik, horregatik”. Edozein saltsatan sartzen dira, baina aitortu digute jorratzea gehien gustatzen zaizkien

“Diru-laguntza publikoak ibilbide luzea daukaten ekoiztetxei daude zuzenduta”

gaiak abstraktoak direla. Gai abstraktoak, egunerokotasunean isla dutenak.

Proiektu piloa daukate hasita eta epe ertainera horiek bukatzea hartu dute helburutzat. Proiektuen artean, bi azpimarratu dituzte *El aleteo de la mariposa* eta *Erlojua eta kukua*. Era berean, REAS sarearen “*La mar viene revuelta*” kanpaina osatzen duten lau bideoetatik lehena aurkeztu berri dute. Interneten dauden plataforma webei esker, euren lanak bidali ahal dituzte hainbat festibalekara eta dagoeneko Bartzelona eta Kanarietako festibalean, eta Zinemaldian izan dira.

Azken urte bietako balantzea egin dute eta oso zaila izan dela aitortu digute, baina hala eta guztiz ere pozik eta

gogotsu dabiltzala. Eta oso zorrotzak direla. “Xehetasunak erabat zaintzen ditugu eta oso gutxitan gaude % 100ean ados egin dugunarekin... Beno, hori da gure egiteko era, gero, emaitzetan isla duena”.

Hasieran aipatu moduan, ekoiztetxea berrasmatzeko momentuan daude Ana eta Paula. “Enpresa sortzen duzunean, zurea baino ez dakizu egiten eta gauza pilo bat ikasi behar duzu: dokumentalak zelan finantzatu, horiek zelan mugitu, marketin estrategia zelan egin... Eta izugarria da batzuetan. Hori dela-eta, ezin izan ditugu ekoiztetxearen oinarriak ondo finkatu eta uste dugu hori egiteko momentua dela. Era berean, gure lan baldintzak ahalik eta duinenak izatea lortu behar dugu, eta disfrutatzeko uneak atera. Eta hori oso korapilatsua da negozioa zurea denean. Ekoiztetxearen irudia ere berrikusi nahi dugu... Dena dela, polita da zure burua etengabe berrasmatzeari”.

Al borde films:

688 888 469

info@albordefilms.com

albordefilms.com



Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak | Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa | Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Ibáñez de Bilbao, 3, 2. solairua, 48001 BILBAO

TEL. 94 424 38 34

GOXO-GOXO LOHITZUN

Arratsaldeko zehelik
Ogile egutiero
Pastelak atzeratuz

Garsiolza, 77c
48196 Lezama
94 455 42 72
gogogoxolohitzun@hotmail.com

Goitiolza, 33 bis LEZAMA
620 15 36 93 - 94 633 81 07
9:00-20:00
www.centroecuestresolazpi.com
solazpi.zalditegia@gmail.com

30 urte, musika korala zabaltzen

t: Itxaso Marina Ondarroa / a: Z.K.K.

Iratxek esan deuskun moduan, azaroan zehar egongo diran musika ekitaldiek urte honeetan taldetik pasau diran abeslariak, familiak, jarratzaileak, lagunak, ezezagunak... batzea gura leukiez, eta horreek Kamara Koralaren kideakaz disfrutau dagien. "Euskal kulturean, betidanik, musikea ideak, sentimenduak eta gogoak adierazoteko bidea izan da. Eta gure lana, azken baten, hau da: taldean musikeagaz gozatu, musikea konpartidu eta alkarren laguntzeagaz eta abotsa erabilita, alkartasunean abestuz gozatu".

Zamudioko Kamara Korala 12 emakumez osatzen dabe gaur egun, entseguetara pozik baino pozago azaltzen diranak. "Eguneroko estresa baztertu egiten dabe, eta alkarlanean, kantua bidetzat hartu eta abotsa egokitasunez erabilita, barneko emozio gorenak ipintzen dabez praktikan". Gainera, abesbatzan badago bertan 30 urte-edo daroazanak: Amagoia, Onintze, Iratxe, Ana, Olatz eta Olite. "Horreek izugarritzko indarra, kalidadea eta ziurtasuna emoten deutsoe abesbatzari. Nire altxorak dira". Altxor gazteak be badagoz, igaz umeen abesbatzea ipini ebelako martxan. "Korukideek umeen abesbatzea sortzeko proposamena egin eben eta umeak animau ziran. Esan beharra dago umeek itzelezko aukerak dabezala eskolaz kanpoko ekintzakaz, eta gurasoen lehentasunen artean abesbatzok ez gagozala. Ziur nago ez dakiela kantuak zelango ekarpena egiten deuten seme-alabei: arreta, memoria, disziplina, alde emozionala... lantzea, segurtasuna, oreka, beste hizkuntza batzuk ezagutzea, jentzeagaz egotea, abotsa egoki erabiltea, poza, nasaitasuna...". Umeen abesbatzea neskatoei zein mutikoei dago zuzenduta.

"Gure lana taldean musikeagaz gozatu, musikea konpartidu eta alkartasunean abestuz gozatzea da"

ZAMUDIOKO KAMARA KORALA

Azaroan, korukideak buru-belarri murgilduko dira urterenaren ospakizun-ekitaldietan. Iratxe Gezuraga Zamudioko Kamara Koralaren zuzendariak egitaruaren barri emon dasku, eta abesbatzaren ildo nagusiei buruz aritugara beragaz.



Ospakizunez betetako hilabetea

Ospakizun ekitaldiei hasierea emoteko, kontzertua eskainiko dabe azaroaren 4an, 19:00etan, Txorierriko Baserri Antzokian. Azaroaren 11n, eta 20:00etatik aurrera, High Felicity taldeagaz batera arituko dira Zamudiotarren, eta azaroaren 18an Txorierriko gainontzeko abesbatzakaz –Sondikako Txuma Olagüe abesbatza eta Txuma Olagüe talde korala, Derioko Ipar-Alde, Lezamako Ekidazu eta Larrabetzuko Gaztelumendi– batuko dira Zamudioko eleizan, 19:00etan. Ostean, kopaua egongo da frontoian.

Bestetik, Fair Saturday ekimen solidarioagaz egingo dabe bat azaroaren

25ean. Kirikiño abesbatzegaz (Mañaria) eta Zornotza abesbatzagaz batera kontzertua eskainiko dabe 19:00etatik aurrera Zamudioko eleizan, eta batzen dan dirua Gure Señeak Derioko alkartari emongo deutsoe. Azkenik, azaroaren 26an Zezili Eguneke meza berezian hartuko dabe parte. Hori urtean herrian abesten daben meza bakarra da, eta igaz lehen aldiz abestu eben umeen abesbatzeagaz batera. Ohiko mezetan abesten danagaz alderatzen bada, Zezili Egunean eskaintzen dan errepertorioa guztiz ezbardina da, XX. eta XXI. mendeetako obrak abesten diralako, latinez eta euskeraz.

*"Kantua bidetzat hartu
eta abotsa egokitasunez
erabiltza, barneko
emozio gorenak ipintzen
doguz praktikan"*

Olentzero Egunean baserri baserri abesten joateko ohiturea berreskuratu gurean sortu zan Zamudioko Kamara Korala 1987. urtean. Gaur egungo korukideei jagokenez, gehienek musika ikasketak edo ezagutzak dabez, baina musika-aren gainean ezer ez ekienak be badagoz, eta imitatuz eta errepikatuz ikasi dabenak. Iratxek batez be teknika bokalari emoten deuto garrantzia, "hori baita gure adierazoteko tresnea. Emaitzak ez dira hilabete gitxitan nabaritzen, baina ekina-aren ekinez soinua asko hobetzen da eta horrek isla dau bai abeslariaren alde emozionalean, bai taldean bertan".

Arin

Musika saio bakotzeko erreperitorioa aukeratzeko orduan, hainbat xehetasun hartu behar dira kontuan: abost motak, tesiturak, abost kopurua, kontzertua non emongo dan, publikoa... Edozelan be, Kamara Koralaren kontzertu batera doanak soinu-bandak entzun ahalko dauz, gaur egungo musikariaren abestiak, baltz espiritualak, erlaxatzeko abestiak... eta gehienbat XX. eta XXI. mendeetakoak. Erreper-



torioa eten barik barritzen dabe. Kantu bat edo bestea aukeratzera gatxa dan arren, Iratxek bereziki gaur egun abesbatzei zuzenduta euskal musikariak egiten dabezanak azpimarratuko leukez. "Josu Elberdinenak edo David Azurzarenak, adibidez. Atzerritarren artean, Jim Papoulisenak edo Josef Hadarrenak".

Gero eta kontzertu gehiago emoten dabez eta hainbat proiektutan hartu dabe parte, esate baterako pop eta rock taldeakaz eta orkestrakaz. Ezkontzetan edo jai pribatuetan be abesten dabe, eta *Zilarrezko doinuak* CD-a kaleratu eben kamara korala-aren 25. urteurrenaren haritik. Musikak Salzburgora eroan dauz, Frantziara, Kataluniara, Madrilera, Kanariar Uharteetara... eta urtean zehar badabez hitzordu finko batzuk: Txorierriko Gabon-kanten jaialdia,

Begoñako abesbatzen astea edo Udabarriko kontzertuak. "Horreetaz gain, proiektuak azaltzen dira. Pentagrama Sondikako akordeoi orkestragaz ibili gara, eta Haur Koruen II. Topaketan be bai. Azaroan, Derion izango dan poesia errezitaldi baten abesteko gonbidapena egin deuskue".

Kamara Korala sortu zanean, Iratxeri ez jakon ezta burutik be pasau hak 30 urte iraungo ebal. "Oso arin pasau jat... Jakina! Abesten dana pasaten da arinago!". Zelan dator etorkizuna? "Egia esan, ez dakit noz arte iraungo dauan. Bakarrik dakidana hau da: gagozenok ederto pasaten dogula abesten, eta gure artean itzezko giro ona eta konplizitatea dagoala". Guztiok gonbidatu gaitue ospakizun-ekitaldietan parte hartzera. "Gura izanez gero, gugaz abestu be egin ahalko dozu!".

Egin zaitez AIKOR!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefona: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

30 euro _____ Beste bat _____

Orri hau helbide honetara bidali:

AIKOR! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behe - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategi-
ren erantzulea TOTOKAN TXORIERRIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuok kudeatuko ditu. Kontrakoa esaten ez diguzun bitartean, zure
datuak kudeatzeko baimena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabitu eta zuzendu ahalko dituzu. Horretarako,
helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

Kortan ere sareari lotuta

t: Xabier Díaz, BTEKeko zuzendaria

a: thatsfarming.com

IoT⁽¹⁾, 4G sareak⁽²⁾, m2m⁽³⁾ komunikazioa ... Gure gizartean siglak maiz erabiltzen dira hizki gutxitan informazio asko sartzeko. Hala ere, batzuetan, esanahia bidean galtzen da. Ezer onik atera daiteke letra zopa horretatik? Tira, oraingo honetan traste bitxi batekin natorkizue.

Niall Austin abeltzaina da, Irlandakoa, eta bere behietariko bat erditzeaz zegoela arazoak sortu ziren. Laguntza heldu orduko ezin izan zuten ezer egin, eta bai behia, bai txekorra hil egin ziren. Orduan hasi zen buruari bueltak ematen... Bere eskarmentuagatik, uste zuen seinale

Abereak jagotea lan handia da. Ongi etorriak lan hori erosoagoa egiten duten teknologiak!



batzuk bazeudela erditzeko momentua ailegatua zela adierazten zutenak; buztanaren mugimendu berezi batzuk hain zuzen ere. Eta ustea Moocall enpresako beste fundatzaile bi izango zirenei jakinarazi zien. Arazoa aztertzen hasi, eta konturatu ziren hilkortasun-tasa asko jaitsiko zela, laguntza eskatzeko edo albatariari deitzeko sistema egokia edukiz gero. Horrela lotu zituzten abeltzaintza, telefono sareak eta IoT/m2m direlakoak.

Moocall erditze sentsorea⁽⁴⁾ behiren buztanera lotzen den tramankulua da. Buztanaren mugimenduak antzematen ditu eta mugimenduek behia er-

dituko dela adierazten dutenean, abisua bidaltzen du sarearen bidez. Sistemak denbora errealeko jarraipena ahalbidetzen du eta, horretarako, oso energia gutxi eta oso hedapen handia duten IoT eta m2m sare protokoloak erabiltzen ditu. Sare protokolo horiek erabiltzeko, haririk gabeko telefono sareaz baliatu egiten da, antenak eta haien potentzia aldatu barik. Egin beharreko gauza bakarra softwarea eguneratzea da.

Sareak abeltzaintzari laguntzeko erabiltzea ez da hain gauza berria. BTEKen horren adibide bat azaltzen dugu: GPS eta GPRS sareak erabiltzen dituen sistema, ganadua non dagoen eta zelako mu-

gimendu-joerak dituen erregistratzen duena. Egitasmoa Mendinet elkarteak ipini zuen martxan 2009. urtean, Neiker-Tecnaliaren laguntzarekin, eta lagungarria izan da abeltzaintzat. Abereak jagotea lan handia da. Ongi etorriak lan hori erosoagoa egiten duten teknologiak!

(1) IoT, "Internet of Things", Gauzen internet <https://goo.gl/VJu8sH>

(2) 4G edo LTE, "Long Term Evolution" sare mugikorraren azkeneko estandarra (oraingoz) <https://goo.gl/DZ8is5>

(3) m2m, "machine to machine", makinaren arteko komunikazioa

(4) <https://moocall.com>



Zenbat aurreratu dugu euskaran?

t: Juan Luis Goikoetxea

Behar bada, irakurle, euskararen gainean ez ditugu berba elokuentek esaten. Hitz hutsak erabiltzen ditugu, izenak baino ez direnak. Euskararen gainean nominalismoa praktikatzen dugu.

Hori gertatu ez dadin, orain 30 urteko testua sartu dut Aikori-en, 1988koa. Orri

hori irakurrita, euskara gaur hobeto dagoela uste duzu? Bai, prestigio handiagoa dauka; legalagoa eta ofizialagoa da. Baina, erabileran aurrera egin dugu? Hogeita hamar urte epe luzea da gero! Eta Txorierriko enpresetan, esate baterako, zenbat euskara erabiltzen da? 2047ra arte itxaron behar ote dugu? Zer da hau? Nor da egoera horren arduraduna?

Derion, 1988.eko Urtarrilaren 29an

TXORIERRIKO EUSKAL AFARIAK -V.-

Agur mahaikide:

Euskara bihotzean daukagun txorierritarrok, ahoan erabili eta eguneroko bizitzan indartzeko, bosgarren afaria antolatu dugu. Zu/hi ere konbidatuta zaude/hago, orain arte etorri izan bazara mahaikide zaitugulako, lehenengoz bazatoz, gure ustez, pozik aurkituko zarela.

LEKUA: "Aldekone Jatetxea", Derio.

EGUNA: Otsailaren 19a, ostirala.

ORDUA: Iluntzeko 9^{ak}.

DIRUA: 1.100 pezeta.

HIZLARIA: Bitor Kapanaga → 6.000 } *Exarri neuk.*

GAIA: Iñauteriak

MENUA: Zopa

Gisatua

Etxeko tarta

Kafea

KONTUZ: TXARTELA EROSTEKO EPEA OTSAILAREN 14AN AMAITZEN DA.

AGUSTIN LANDETA

LOURDES ETXEBARRIA

JUAN LUIS GOIKOETXEA

IRATXE ORMAETXE

GURUTZE ROLA

IDOIA GAZTELU



Baserritarren Alkartea Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

*Pentsu
naturalak*



ARTIZAR

MARKOA IPINTZEKO TAILERRA

MARKOAK • MOLDURAK • GRABATUAK

LIKIDAZIOA
ERRETIROA HARTZEAGATIK
MARTITZEN ETA EGUNETAN, ZABALIK

Justo Ajuria, 3
644 24 36 30

48150 Sondika
Bizkaia



Hortz-klinika
IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-IMPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Areitza doktorea, 11. - 1. ezk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Uribe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370



OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behe
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

Berenjena-lasagna

Osagaiak (lau lagunentzat):

- Berenjena bi
- Tomate bi
- Kipula bi
- Antxo-lata bat
- Edalontzi txiki bat ardao zuri
- 80 g mozzarella
- Oreganoa

Prestetako area:

Kipula juliana eran ebagi eta zar-tagin baten sueztituko dogu. Beren-

jenak eta tomateak xerratan ebagiko doguz, eta lasaña ordena honetan prestatuko dogu: berenjenazko geruza bat, kipula eta tomatezko geruza bat. Orotara, hiru geruza ipiniko doguz. Azken geruza ipini baino lehen, antxoak gehituko doguz. Labara sartuko dogu 30 minutuan. Ardao zuria bota eta beste 30 minutuan edukiko dogu laban. Gaztaia eta oreganoa bota eta laban eukiko dogu harik eta gainerretzen dan arte.



a: cocinarparalosamigosblogspot.com

Etxeko sukaldaritza

Hegaluze-mendrezkea barazkiakaz

t: Maite Lekerika

Osagaiak (lau lagunentzat):

- Kilo bateko hegaluze-mendrezka bat
- Kipula handi bat, xerra meheetan ebagita
- 150 g piper berde, xerra meheetan ebagita
- 150 g piper gorri, xerra meheetan ebagita
- 100 ml oliba orio
- Gatza

Prestetako area:

Arrainari hazurrak eta azala kendu eta xerratan ebagiko dogu. Gatz apur bat bota eta gordeko dogu. Orio-zurrusta bat ipiniko dogu zartagin baten eta han kipulea erregosiko dogu. Ostea, piperrak gehituko doguz eta su ez-tian egingo doguz, harik eta biguntzen diran arte. Gatz apur bat bota eta hegaluze-mendrezkak barazkien gainean ipiniko doguz. Alde bakotxetik minutu baten eukiko dogu. Mendrezka bakotxa plater baten ipiniko dogu eta gainetik barazkiak botako deustaguz.

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zainatze Berrak
Logopedia
Podologia
Kiropraxia

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txontxi etorbidea, 9 - Loria | Antsaga erakina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 667 79 54 46
info@dentazainduz.com | www.dentazainduz.com

HAUR-MODA
TxIMELETA

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

NEURTU ZURE ERAKUNDEAREN HIZKUNTZA EGOERA

6 PAUSOTAN

ZUK ZEUK, AZKAR ETA ERRAZ

BETE ZURE
AUTO-DIAGNOSTIKOA

bai
euskarari

baieuskarari.eus
/baieuskarariziurtagiria
@baieuskarari

Ziurtagiriaren Elkartea
Lan eta bizi euskaraz


SARRIKOLA OGITEGIA

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Umeen txokoa: bost desberdintasunak

Ezetz bost desberdintasunak topatu irudi biren artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.



a: www.pasatiemposinfantiles.es

Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

–Alexis Zorbaren Hitzak Eta Egintzak (Elkar), Nikos Kazantzakis.
–Jenis Joplin (Susa), Uxue Alberdi.
–Feriataileak (Susa), Patxi Larrion.
–Politika zikina (Elkar), Iñaki Irasizabal Izagirre.

HAUR ETA GAZTEENTZAT

–Pintto Eta Rock-A (Tarttalo), Magali Le Huche.
–Eskularru Beltzak (Elkar), Jasone Osoro Igartua eta J. "josevisky" Larretxe (il.).
–Kontxako Haur Galduak (Erein), Seve Calleja.
–Elurraren Formula (Elkar), Bertol Arrieta Kortajarena.

MUSIKA

–Jabier Muguruza & Bernardo Atxaga - Harriaren Hiztegia.
–Mendira Naiz, Oskarbi.

Sudoku

7	4				8			6
	2	3	4					
	9	6			5			
	7			5				
							5	
				7			8	2
4	3		9			2		
9					7	6		
	6			2			3	

8	1	6	7	5	2	4	9	3	8
9	5	2	3	8	7	6	4	1	
4	3	8	9	6	1	2	7	5	
3	1	5	6	7	9	4	8	2	
6	8	9	1	4	2	7	5	3	
2	7	4	8	5	3	1	6	9	
8	9	6	7	1	5	3	2	4	
5	2	3	4	9	6	8	1	7	
7	4	1	2	3	8	5	9	6	



Erakusketak

Derio

- > Emakumeak Indian. Azaroaren 3tik 23ra, Kultur Birikan.

Hitzaldiak

Derio

- > Mintegi espresa. Azaroaren 7an, 19:30: Kultur Birikan. DATek antolatua.
- > Nola jokatu eta hezi kontsumismoaren aurrean. Azaroaren 8an, 18:30ean, Kultur Birikan.

Lezama

- > Segurtasuna mendian. Azaroaren 7an eta 9an, 19:30ean, Kultur Aretoan. Gailur mendi taldeak eta Bizkaiko Mendizale Federazioak antolatutak.
- > Lehen laguntzak eta K.B.B. Azaroaren 4an, 9:00etan, Uribarri topalekuan. Gurutze Gorriaren eskutik. Zorribike elkarteak eta Udalak antolatua.

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: Arantza Urretabizkairen *Zergatik Panpox* eta Miren Agur Meaberen *Azalaren kodea*. Azaroaren 23an, 19:00etan, Angulerin.



Ikastaroak

Zamudio

- > Zen meditazioa. Azaroaren 16an, 19:00etan, eskolako areto nagusian.

Ikuskizunak

Sondika

- > Ipuin kontalaria. Azaroaren 10ean, 18:00etan, liburutegian.

Irteerak

Sondika

- > Orixol mendia (Arrazola-Atxondo). Abenduaren 3an. Izena ematea: azaroaren 29ra arte, liburutegian.

Zamudio

- > Bizkaiko birako etapa, Arroeta mendi taldearen eskutik. Azaroaren 19an.

Lezama

- > Gorbeia. Azaroaren 11n, 8:30ean, Herriko plazan. Gailur mendi taldeak antolatua.
- > Ganguren-Avril mendia. Azaroaren 19an, 9:30ean, eskolan. Gailur mendi taldeak antolatua.

Jaiak/ospakizunak

Loiu

- > Liburutegiaren XXV. urteurrena. Azaroaren 24an, 18:00etatik aurrera: ipuin kontalaria, tailerrak...

Sondika

- > San Martin. Azaroaren 11n, Izartza auzoan. 12:30etik aurrera: meza, aurreksua eta kalejira.

Larrabetzu

- > Bizkargi dantza taldearen hirugarren urteurrena. Azaroaren 10ean.

Kirola

Zamudio

- > Zamudioko V. Rallya. Azaroaren 17an eta 18an.

Musika

Derio

- > "Euskal olerkariak" musika errezitaldi poetikoa. Azaroaren 13an, 19:30ean, Kultur Birikan.
- > Santa Zeziliaren ospakizuna, Ipar-Alde abesbatzaren eskutik. Azaroaren 19an, 12:30ean, San Isidro elizan.

Lezama

- > Kantu poteoa, Santa Zezilia Egunaren haritik. Azaroaren 24an, 20:00etan. Ekidazu abesbatzaren eskutik.

Larrabetzu

- > Domekak Hori Baien: Physis vs. Nomos. Azaroaren 19an, 18:30ean.

Lehiaketak

Sondika

- > Gabonetako postalak. Arauak, azaroaren 6tik aurrera, Udaletxean, liburutegian eta www.sondika.net webgunean.



Larrabetzu

- > Gabonetako postalak. Parte hartzeko epea: azaroaren 13tik 17ra. Arauak, eskolan eta Anguleri Kultur Etxean.

Bestelakoak

Derio

- > Txarriboda. Azaroaren 18an, 14:00etan, Baserri Antzokian. Tximintx euskara elkarteak antolatua. Informazioa: tximintx@gmail.com eta 651 08 37 98 telefono zenbakia.

Larrabetzu

- > Gabonetako irteeretan izena ematea. Azaroaren 13tik 17ra, Anguleri Kultur Etxean.

TABERNA GAZTE DI

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

Enaitz

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioitza, 74
48196 Lezama

BOLALEKU
JATETXEA

10. URTEURRENA

Garaioitza, 1 - LEZAMA
94 455 41 10
Jasotzen Facebooken

- Hainbat menu
- Karta
- Ospakizunak
- BOLAPARK



DERIOKO ZERBITZU ETA MERKATARITZAKO ELKARTE PROFESIONALA

derio

EGUNA EZTITZEN DIGUZU





ESKERRIK ASKO,
BELEN!